



Gabriel Jauregi
Batxilergorako materialak

XIX. eta XX. mendeetako gizarte-filosofia: liberalismoa, marxismoa eta komunismoa

Julian Enfedaque Betanzos



Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Gabirel Jauregi Bilduma
Batxilergorako materialak

8

**XIX. eta XX. mendeetako
gizarte-filosofia:**
liberalismoa, marxismoa eta komunismoa

Julian Enfedaque Betanzos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma (iruzkigintzarako testuak).
2. Mikroekonomiaren oinarriak.
3. Energia baliabideak. 1. Batxilergo teknologikoa.
4. Arte marrazketa.
5. Oinarritzko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta mekanismoak.
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan.
7. Filosofiaren historia.
8. XIX. eta XX. mendeetako gizarte-filosofia.

Argitaldia:	1. ^a , 2009ko otsailean
Ale-kopurua:	500
©	Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria.Gasteiz
Egilea:	Julian Enfedaque Betanzos
Fotokonposizioa:	Composiciones RALI, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 7. ^a - 48010 BILBAO
Inprimaketa:	Estudios Gráficos ZURE, S. A. Carretera Lutzana-Asua, 24-A. Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2877-2
L.G.:	BI-3820-08

AURKIBIDEA

1. XIX. MENDEKO LIBERALISMOA	7
1.1. Liberalismo iraultzailetik utilitarismoaren liberalismora	9
1.2. Liberalismo klasikoa eta utilitarismoaren etika	11
1.3. Jeremy Benthamen ezagutza teoria, fikzioak	11
1.4. Liberalismo klasikoaren ekonomia teoria. David Ricardo	12
1.5. Liberalismo eguneratua eta zuzendua	16
1.6. John Stuart Mill eta etika utilitarista	18
1.7. John Stuart Mill eta gizarteari buruzko kezka	19
1.8. John Stuart Millen liberalismo berria	22
2. MARXISMOA	25
2.1. Karl Marx. Bizitza	27
2.2. Liberalismoaren eragina	27
2.3. Hegel-en eragina	28
2.4. Marxismoaren helburua eta ideologiaren kontzeptua	32
2.5. Gizakiaren gaineko buruera Marxen teorian: alienazioa	33
2.6. Materialismo historikoa	34
2.7. Kapitalismoaren amaiera	37
2.8. Nola eratu zen kapitalismoa?	38
2.9. Gizarte-iraultzaren estrategia: Marxengandik Lenin-engana	39
3. KOMUNISMOA	43
3.1. Zer da Leninismoa?	45
3.2. Errusiar Marxismoa	45
3.3. Leninen alderdiari buruzko teoria	47
3.4. Bi iraultzen auzia: iraultza burgesa eta iraultza proletarioa	48
3.5. Kapitalismo inperialista	50
3.6. Iraultzaren garaiko erronkak: eskubide demokratikoak	53
3.7. Iraultzaren erronkak: gobernua	54
3.8. Alderdia, proletarioen abangoardia	54
3.9. Alderdia eta zentralismo demokratikoa	55
3.10. Stalin eta sozialismoa herri bakar batean	56
4. BIBLIOGRAFIA	61

*XIX. mendeko
liberalismoa*

1

1.1. LIBERALISMO IRAULTZAIKETIK UTILITARTISMOAREN LIBERALISMORA

Liberalismoa izeneko filosofia eta praktika politikoak berebiziko garrantzia izan du mundu osoaren bilakabide politikoan, baina bereziki Europako kulturari lotutako herrietan. Filosofia politiko hura sortu zenetik hiru mende pasa dira eta, hala eta guztiz ere, orduko haren printzipio eta idealek oraindik ere indarrean diraute eta eragin nabaria dute gaur egungo politikagintzan.

Liberalismoaren hasierako eboluzioan bi une nagusi bereiz ditzakegu:

- a) Hasieran, XVIII. mendean, teoria politiko liberala iraultza burgesei lotuta garatzen da, hau da, Frantziako iraultza eta Estatu Batuetako independentzia bultzatzen duen filosofia da.
- b) XIX. mendean iraultzen ondorengo liberalismoa dugu. Bigarren une horretan liberalismoa askatuz doa hasierako asmo iraultzaile haietatik. Liberalismo horren teoria eta praktika Ingalaterran garatzen da lehenik, eta haren ordezkari filosofiko garrantzitsuenak filosofo utilitaristak dira, Jeremy Bentham (1748-1832), James Mill, John Stuart Mill (1806-1873), batetik, eta ekonomista liberalak, David Ricardo (1772-1823), kasu, bestetik.

XIX. mendeko liberalismoa da atal honen gai nagusia da, baina hori azaldu baino lehen aurrekoaren ideiak azaltzera joko dugu bien arteko loturak eta aldeak hobeto ulertzeko. **Kontua da liberalismoa eboluzio hartan nabarmen moderatu zela, eta aldaketa haren arrazoiak azalduko ditugu.**

1.1.1. Iraultzei lotutako liberalismoa

Iraultzen aroa bultzatu zuten idealak John Locke-k, XVII. mendeko filosofoak argiro adierazi zituen. Ideal politiko haiek honako hauek ziren: **askatasun zibilak —pentsatzeko, elkartzeko eta adierazteko askatasuna—, jabetza pribaturako eskubidea, eta ondo informatutako herriak erakunde politikoak kontrolatzeko duen eskubidea.**

Leku guztietan ideal haiek gobernu-era konstituzionalen bidez burutu zitezkeela onartzen zen, baldin eta honako jokalegeok adosten baziren: legea da gobernuaren mugatzaile, eta gobernuaren atal guztiek hautesleen aurrean erantzun behar dute.

Ideal politiko horiek eta beroriek gauzatzeko gobernu-era egokia XVIII. mendeko filosofian aldarrikatu ziren, gizakiaren berezko eskubideen izenean. Nahiz eta hasierako liberalismo haren filosofia (gizakiaren berezko eskubideena) eta XIX. mendeko liberalismoaren filosofia bat etorri xedeei zegokienez, desberdintasun sakonak zituzten.

1.1.2. Liberalismoaren aldaketaren arrazoiak

Liberalismoaren teoria eta praktika politikoaren aldaketaren arrazoiak:

- **Arrazoi historikoak:** XVIII. mendeko liberalismoa inspiratzen zuen filosofia iraultzei lotutako filosofia zen. Baina, Frantziako iraultzaren gehiegikeriek aurkako erreakzioak eragin zituzten Europa osoan barrena. Iraultza garaiko izuak eta Napo-

leonen inperialismoak liberalismoaren filosofia eta jardun politikoaren moderazioa ekarri zuten.

- **Arrazoi filosofikoak:** hasierako liberalismoaren filosofia, hau da, gizakiaren berezko eskubideen filosofia, iusnaturalismoari eta arrazionalismo filosofikoari lotuta zegoen. Teoria horren arabera, gizaki guztiok giza natura komuna dugunez, espezie gisa definitzen gaituzten zenbait ezaugarri berezko ditugu. Izatez ditugun gaitasun natural horiek gauzatzeko, gizakioi aitortu behar zaizkigu eskubide batzuk bizi eta gizaki moduan garatzeko. Bestela, gizakioi eskubide horiek ukatzen bazaizkigu, gizakitzat hartu beharrean piztiatzat hartuko gintuzkete.
- Teoria horren aldeko filosofoen ustean, eskubide natural haiek intuizioz agerikoak dira, matematikaren teorema bezainbestekoak. Hala ere, XIX. mendeko hasiera aldera natura-zientzia esperimentalen eragina zela-eta, giza zientzietan enpirismoaren pisua gero eta handiagoa zen, eta berezko eskubideen aldeko filosofiaren arrazoiak, arrazionalismo filosofikoak defendatzen zituenak, ahulduz joan ziren.
- **Arrazoi sozialak:** industrialarien eta merkatarien klasearen posizioa gizartean seguruago eta garrantzitsuago bilakatu ahala, jarrera politikoa eta ideologikoa moderatuz joan ziren, eta, horren ondorioz, memento hartara arte zeukan kutsu iraultzailea galtzen hasi zen.

Klase hori XIX. mendeko erreforma politiko liberalaren protagonista izan zen. Hau da, industria eta merkataritza zenbat eta gehiago hazi, orduan eta botere politiko handiagoa lortzen zuen klase horrek. Burgesen klasearen aldean, lur-jabe handien nobleziak garrantzia eta ahalmen politikoa galtzen zuen. Beste aldetik, langileen klaseak ez zuen bere egoeraren konzientzia hartu, eta antolatu gabe zegoen.

Beraz, bistan da klase burgesak gizartean zeukan posizio berriak ekarri zuela joera iraultzaileak moteltzea, ideietan zein metodoetan. Ideologiaren inguruko eztabaidetatik erakundee-tako erreforma zehatzetara pasatu behar zen (administrazioa modernizatzea, justizia-erakundeak erreformatzea, osasungintza...). Handik aurrera, teoria arazo zehatz eta errealak konpontzeko erabili behar zen, eta horren ondorioz, liberalismoaren filosofia iraultzaile izatetik utilitarista izatera pasatu zen.

Liberalismoaren mugimendu politikoa mendebaldeko Europan eta Amerikan zehar hedatu zen. Hala ere, Ingalaterran izan zuen liberalismoak lehen garapena, Ingalaterra baitzen XIX. mendean munduko herririk industrializatuena. Bertan liberalismoa nazio mailako filosofia eta politika bilakatu zen.

Prozesu horretan bi memento bereiz ditzakegu: hasierakoan, liberalismoaren teoria politikoak eta ekonomikoak industriako eta merkataritzako burgesen interesak defendatzen ditu. Bigarren mementoan, ordea, nabari geratu zen behar beharrezkoa zela langileen klasearen eta nekazarien interesak ere kontuan hartzea.

Aurreko banaketa horri begira, liberalismo ingelesaren filosofia ere bi mementotan banatu dezakegu:

- a) Liberalismo klasikoa: Jeremy Bentham, David Ricardo eta James Mill ditu filosofo gailenak.
- b) Liberalismo zuzendua eta erreformatua: John Stuart Mill da haren autore nabarmena.

1.2. LIBERALISMO KLASIKOA ETA UTILITARISMOAREN ETIKA

XIX. mendeko liberalismoan egin dugun banaketa horretako lehenengo mementoa azaltzeari ekingo diogu, eta Jeremy Benthamen (1748-1832) filosofia eta David Ricardoren ekonomia-ideiak agertuko ditugu.

Autore horien gizarte-filosofiaren muinean utilitarismoaren filosofia morala topatzen dugu, eta etika horren printzipioetan oinarrituta, legeetan, politikan eta ekonomian erreforma multzo bat egiten saiatu ziren. Haien ustez, erreforma haiek guztiak etika utilitaristaren honako arau nagusi honetan bermatu behar ziren: «Zorionik handiena ahalik eta jende gehienarentzat».

J. Bentham (1748-1832)

Legegizon eta filosofo horren etika-ideiak idazlan honetan agertzen zaizkigu, *Moralak eta legegintzako printzipioei sarrera*.

Benthamen etika hedonista da: atsegina eta mina gizakiaren jokabide osoaren kausa eta zio dira. Gizakiok jokatzera, ekitera bultzatzen gaituen arrazoia gure zoriona lortzea da, eta Benthamek, hedonista klasikoen antzera, uste du zoriona plazer eta minik eza dela. Gizakiok atsegina lortzean eta mina saihestean aurkitzen dugu zoriona. Hortaz, atsegina eta mina, eta horiek dakartzaten zorion eta zorigaitza arau edo legeen zuzentasuna juzgatzeko **irizpide** bihurtzen dira. Lege batek zenbat eta zorion handiago ekarri gehiengoarentzat, hainbat eta hobea da.

Horrezaz gain, etika horren azpian dagoen psikologiak erakusten dio legegileari zein diren giza jokabidearen motiboak, eta horiek jakinik, legegile trebeak herritarren jokaera molda dezake gehiengoarentzat zorionik handiena lortzeko.

Ikusten dugunez, legeek gizartean zeuzkaten ondorio zehatzak balioesteko erabili behar zen zorionik handienaren printzipioa. Premiazkoa zen, beraz, Benthamen etikan atseginaren kalkularen problema ukitzea. Horregatik, Bentham erakusten saiatu zen nola neur zitezkeen atseginaren eta minaren kantitatea eta eragina faktore hauen arabera: intentsitatea, iraupena eta abar.

Arauk, legeak eta jokabideak balioesterakoan zein irizpide erabili behar zen azaltzeaz gainera, atseginaren eta minaren teoriak bazuten beste balio garrantzitsu bat Benthamen ustean. Teoria horien bitartez, gizartearen gaineko ikerketetan eta argudiatze politikoan hainbatetan erabiltzen ziren «fikzioak» agerian utzi, eta aurretiaz saihesten ziren. Puntu hori azaltzeko, Benthamen ezagutzaren gaineko buruera azalduko dugu.

1.3. JEREMY BENTHAMEN EZAGUTZA TEORIA ETA FIKZIOAK

Benthamen ezagutza-teoria erabat enpirista eta nominalista da: edozein izen zerbaiten izena da. Beraz, izen batek esanahia dauka baldin eta berak aipatutakoari dagokion zentzumenezko esperientzia erakusteko gai bagara («aulkia» izenak esanahia baldin badu, izen horri munduan dagokion esperientzia erakusteko gai garelako da, hau da, hor aurrean ikusten dudalako horren irudierekin izen horren soinua elkartzan dudalako). Baldin eta izen batek erreferentzia egiten badio izaki zehatz eta jakin bati, ez dago esanahia okertzerik. Adibidez, «liburua da nire jabetza» esaldian «liburu» eta «jabetza» izenen esanahiekin ez dago nahasterik. Baina termino horiek kontzeptu

orokortzat hartzen ditugunean, «Jabetza pribatuaren eskubideak ezin daitezke zapaldu» bezalako esaldian, fikziozko esanahia eman ahal zaio «jabetza» termino orokorrari.

Benthamen ustez, nahasmendu eta iluntasun itzela ekarri du fikziozko izakien izena izaki errealean izentzat hartzeak. Zeri egiten diote erreferentzia honako termino orokor hauek: eskubideak, jabetza, Koroa, estatuaren arrazoia, ongizate orokorra... ? Ez dago izen orokor horiei dagozkien esperientzia zehatzik erakusterik, izen horien interpretazioa oso iluna izan daiteke eta zerbait argi eta zehatz adierazten dutela pentsatzea fikzio hutsa da.

Benthamen iritziz, gizartea edo estatua bezalako organismo konplexuak fikziozkoak dira argi eta garbi. Gizarte edo estatu hori osatzen duten norbanakoak baino ez dira existitzen. Gizartearen edota estatuaren izenean egiten den guztia gizabanako zehatz batek egindakoa da eta, hortaz, gizartearen edo estatuaren onura, beren kideen interesen onura da.

Beraz, zorionik handienaren printzipioak fikzioak agerian uzteko balio duenez oso erabilgarri gertatzen da. Hau da, erakunde edo lege bat egokia izango da, baldin eta gizabanakoen bizimodurako ondorio onak baditu. Zerbait «estatuaren arrazoiaren izenean» egin dela argudiatzeak ez du ezer justifikatzen, «estatuaren arrazoia» fikziozko zerbait da, estatua ezer ez delako estatu hori osatzen duten herritarren multzoa ez bada. Beraz, edozein erabaki politiko justifikagarria den ala ez ikusteko, herritarren bizimodurako dituen ondorioak soilik hartu behar dira aintzat.

Benthamen iritziz, fikzioen teoria hori oso erabilgarria da politika eta legegintza kritikatzeko. Biak fikzioz beterik baitaude eta askotan fikzio horiek benetan onartezinak diren talde jakinen interesak justifikatzeko balio izan baitute (nazioaren izenean, herriaren izenean, estatuaren izenean...).

Laburbilduz, onartzen baldin badugu atsegina sortzeak eta mina saihesteak baino ez duela balio eta, horrekin batera, atsegina eta mina norbanakoaren esperientzia jakinetan soilik gerta daitezkeela, orduan nahitaez honako hau onartu beharra dugu: legeek edo gobernuak balio dutela bakarrik gizakien ondasunetarako eta bizimodurako ondorio onak baldin badituzte.

Printzipio hori edozein filosofia liberalen gako da. Ikusten dugunez, edozein gobernuaren oinarria ez da ustezko hitzarmen huts bat, gizakien premiek eta premia horien asebetetzeak soilik justifika baitezakete gobernuak. Beraz, ez dago betiereko legerik edo konstituziorik, guztia erreformatu daiteke-eta herritarren gehiengoaren zorionak hala eskatzen badu.

Horrela, Benthamek liberalismoaren mamia diren ideiak ezarrita utzi zituen:

- Zorionik handienaren printzipioa da gobernuen edo legeen balioa juzgatzeko irizpidea (*erabilgarritasunaren irizpidea*).
- Edozein erreforma egin daiteke prozesu legegile baten bitartez, legeak subiranoak baitira.
- Jurisprudentiaren helburua legeak aztertzea eta kritikatzeko da, gehiengoaren zorionaren irizpidearen arabera.

1.4. LIBERALISMO KLASIKOAREN EKONOMIA TEORIA. DAVID RICARDO (1772-1823)

Liberalismoaren ekonomia-teoriari Teoria Klasikoa edo *laissez faire* teoria esaten zaio (*laissez faire*-k, frantsesez, *egiten uztea* esan nahi du, eta esamolde horren bidez adierazten da

liberalismo ekonomikoaren oinarritzko printzipioa; hau da, estatuak ez duela ekonomian esku hartu behar, ekimen pribatuari askatasunez egiten utzi behar diola). Teoria horrek pentsamolde liberalean eragin itzela izan zuen. Benthamek agertzen zituen helburuei dagokienez antzekotasun nabariak sumatzen badira ere, teoria klasikoa ez dator guztiz bat pentsalari britainiarraren plan-teamendu filosofikoekin.

Autore haien zenbait ekonomia-idea azaldu arren, ideia horien azpian dagoen ikuskera filosofikoari erreparatuko diogu batik bat, XIX. mendeko filosofia politikoa baita lan honen gaia.

Ekonomia-teoria horren aitzindariak Adam Smith (1723-1790) eta fisiokrata frantsesak izan ziren. Adam Smithen *Nazioen aberastasunaren kausei buruzko entsegua* (1776) izeneko lana pentsamolde horren abiapuntua da. Baina teoria klasikoaren azalpenik biribilena David Ricardoren (1772-1823) *Ekonomia politikoaren printzipioak* (1817) idazlanean topatzen dugu. Bertan Thomas Robert Malthusen (1786-1834) zenbait ideia ere kontuan hartzen dira; esate baterako, Populazioaren Teoria ospetsua.

1.4.1. Gizarte-zientzia berri bat jaiotzen da

Zientziaren historiarako, liberalismoaren teoria klasikoa sortzea garrantzizko gertakizuna da industria-iraultzaren garai haietan, memento hartan bertan ekonomia gizarte-ikerketara independente eta zientifiko bihurtu baitzen.

Garai hartan zientifiko izan nahi zuen edozein ikerketak Newtonen natur zientziak zeuzkan eredutzat. Zientzialari ingelesak unibertsoko mugimenduak zenbait lege fisiko zehatz eta unibertsalekin azaltzen zituen, eta lege horiek edozein toki eta denboratarako balio zuten. Hau da, grabitazioaren legeak Lurrean gertatzen ziren higidurak zein Merkurion gertatutakoak azaltzen zituen, bai gaurkoak, bai duela mila urtekoak ere. Era berean, ekonomista haien iritziz, ekonomiak zientzia bihurtu behar baldin bazuen, ez zuen egon behar gizarteko eta historiako zirkunstantzien mende.

Ekonomia klasikoaren auresuposizio filosofikoen arabera, ekonomia giza naturaren lege orokorren menpe dago, hots, ekonomia-kontuetan dugun portaera Benthamek azaldutako psikologia enpirista eta hedonistaren bitartez azaldu daiteke. Horregatik, edozein ekonomiaren legeak azaltzen saiatu ziren egoera historiko, kultural, politiko eta abarrak kontuan hartu gabe.

Aipatutako auresuposizio horixe liberalismo klasikoaren bereizgarri nagusietako bat da. Eta esan beharra dago gaur egun desegokitzat jotzen dela ideia hori, begi-bistakoa baita gizarte baten ekonomiak, legeek, gobernu-erak eta abarrek lotura estua dutela elkarrekin.

Izan ere, lehenengo ekonomista haien zientzia-eredua objektiboa eta neutroa bazen ere, ez dago ukatzerik beren teoriaren bilakabidea nabarmen baldintzatuta zegoela, ekonomista liberalek memento hartan Ingalaterrako ekonomian erreforma zehatzak egiteko konpromisoa hartua baitzuten.

1.4.2. Zenbait gertaera historiko

Horri lotuta, garai hartan Ingalaterran dauden interes kontrajarriak buruz pare bat hitz esan beharko dugu: Napoleonen aurkako gerrak bukatzean industria-produktu ingelesak merkatuan

gainbehera joan ziren, eta horrek agerian utzi zituen lur-jabe handien eta industrialarien aukako interesak.

Ingalaterran gariaren gaineko zergak nekazaritza-produktuen merkatua babesten zuen aspalditik. Neurri ekonomiko hori industrialarien eta merkatarien interesen aurka zihoan, horiek nahiago baitzuten merkatu libreko politika; produktuak zergen bidez ez babestea, alegia, elikagaiak merkeago lortzeko.

Gerra napoleonikoen ondorengo estualdiak nobleziaren lur-jabe handiak, eta alderdi libe-raleko merkatari eta industrialariak elkarren aurka ipintzea ekarri zuen, interes ekonomiko kon-trajarriak baitzituzten. Horrek Parlamentuaren erreforma egitea, eta 1846an gariari buruzko le-geak baliogabetzea ekarri zituen. Horren guztiaren ondorioz, Ingalaterra lehenengo nazio industrial modernoa bilakatu zen. Ekonomia-eztabaida horren giroan sortu zuen David Ricardok bere teoria ekonomikoa, eta hori dela-eta, garai hartako bereizgarriak ditu bere lanak.

1.4.3. Naturari buruzko bi ikuskera desberdin

Beste aldetik, Ekonomia klasikoaren filosofia-oinarriari dagokienez, zientziak erabat lo-gikoa izan nahi baldin bazuen ere, esan beharra dago bi filosofia-ideia kontrajarri erabiltzen zi-tuela naturari buruz. Bi ideia horiek filosofia modernoaren baitan naturari buruz zeuden bi ikuskera desberdin adierazten zituzten:

1. **Lehenengo ideiak adierazten du naturaren ordena arrazionala, harmoniatsua eta ongilea dela, eta hortaz, ordenu horren arabera jokatzuz justizia gauzatzen dela.** Pentsamolde hori arrazionalismo filosofikoan topatzen dugu eta ildo horretatik jotzen du Adam Smithen teoria ekonomikoaren azpiko filosofiak ere. Pentsamolde horretan balio moralak, justizia kasu, naturaren ordena horretatik datoz.
2. **Bigarren ideia David Hume-ren (1711-1776) kritika enpiristatik dator. Horren ustez, naturan suertatzen diren erregulartasunetatik ezin daiteke ondorioztatu inolako Lege Naturalik, ezta balio moralik ere.** Naturaren ordenak ez dauka ze-rikusirik moralitasunarekin, justiziarekin edo gizakiaren ongizatearekin. Humeren ikuspuntu horretatik, jokabideak, arauak edo legeak onak dira onura ekartzen badi-gute, erabilgarri zaizkigulako. Horixe da, hain zuzen, Benthamen utilitarismoak hartutako jarrera.

Aipatutako bi jarrera filosofiko horien arteko kontrastea D. Ricardoren teorian ere aurkitu dezakegu:

1. **Ricardo bat dator Adam Smithekin lehia libreko merkatu-ekonomia baloratzean. Ekonomia-sistema hori justifikatzen dute filosofiaren bidez. Horien ustez, merka-tu libreko ekonomia naturala eta justua da gizakiak berezkoa baitu.** Berezkoa du, giza naturaren ezaugarriekin ados dagoen bakarra delako; arrazoimenak, askatasunak eta hobetzeko ahalmenak dira gizakia beste animaliangandik bereizten duten ezauga-riak (Ilustrazioko ideiak). Ekonomista horien iritziak, lehia libreko merkatuan bakarrik gauza daitezke gizakiaren ezaugarri horiek. Lehia libreko merkatuan, salerosteko eta kontratatze askatasuna dago, prezioak eskaintza eta eskaeraren legearen arabera erabakitzen dira, eta ekoizleek merkantziak arau neutro horien arabera elkartrukutzen dituzte. Beraz, Smithen eta Ricardok

azpimarratzen dutenez, parte-hartzaileen artean justizia eta berdintasuna da jaun eta jabe merkatu libreko negozioetan; bertan, arrakasta ekonomikoa norberaren gaitasunen emaitza da, azkarra eta langilea denak arrakasta baitauka.

Erabat librea den merkatu bat, monopoliorik eta pribilegiorik gabe, erabat neutroa da. Hoberen eta gehien lan egiten duenak irabaziak eskuratzen ditu. Eta halako merkatuan gobernuak ez du esku hartu behar, ez du ezer arautu behar, premiazkoa denean merkatuak berak arautzen eta zuzentzen baitu bere burua. Gobernuen eginkizun bakarra gizartean bakea bermatzea baino ez da.

Lehia librearen bitartez merkantziak eta zerbitzuak ahalik eta preziorik baxuenean ekoiztera jotzen da, eta aldi berean, irabazkin zuzena lortzen da egindako lanaren truke. Hortaz, Adam Smithen ikuskera optimista horretan merkatua justua da; ekoizleen arteko berdintasuna bermatzen du, eta industrialariak eta merkatariakek beren lanetan eraginkorragoak izatera bultzatzen ditu. Horren ondorioz, harmonia sortzen da berez interes desberdinen artean, norberaren berekoikeriak —ahalik eta irabazkin handien lortzeko asmoak, alegia— komunitateari aberastasuna eta onurak baitakarzkio.

2. Baina David Ricardoren planteamendua Humeren jarrera filosofikora hurbiltzen da jarduera ekonomikoaren produktua nola banatzen den ikertzean.

Oraingoan lehen aipatutako egoera baikor hura zeharo desberdina da; gizarte jakin batean indarrean dauden klase sozialek baldintzatzen baitute nola banatzen diren jarduera ekonomikoaren irabazkinak. Hori dela eta, argi geratzen da, alde batetik, edozein gizabanakoren itxaropena bere gizarte-klaseari dagokion ekonomia-mailaren mende dagoela; eta, beste aldetik, klase bakoitzaren interesak beste klaseen interesen aurka daudela beti.

Horren guztiaren **ondorioa** begi-bistakoa da: **klaseen arteko gatazka berez sortzen da edozein gizarteren ekonomiaren baitan**, eta, lehen esandakoaren kontra, ekonomiaren garapenak ez du jotzen interesen arteko harmonia naturalera.

Arestian esan dugunez, D. Ricardo ekonomia ingelesa liberalizatzearen alde dago eta bere lanean gariaren gaineko zergak kentzea aldarrikatzen du. Arazo horri lotuta, **Ricardo konturatu zen lur-jabe handien eta kapitalisten interesak aurrez aurre jarrita zeudela.**

Haren ustez, ekonomiaren produktua nola banatzen zen ulertzeko, behar-beharrezkoa zen populazioaren hazkundera eta bizi-mailaren artean dagoen erlazioa ulertzea, eta horixe zen, hain zuzen, Malthusek *Populazioaren inguruko printzipioen entseiu*an (1798) azaldu zuena: **ilustrazioaren** optimismoaren kontra, Malthusek zioen gizakiak neurri gabe ugaltzeko daukan gaitasunak gizarte-aurrerakuntza mugatzen duela.

Gizartean, bizi-mailan suertatzen den edozein hobekuntzak populazioaren hazkundera eragiten du, eta denbora laburrean populazioa hazteak aipatutako hobekuntza ezereztatzen du. Oro har, populazioak, jakien ekoizpena baino azkarrago hazten denez, bizi-baliabideen gaineko presio gogorra egitera jotzen du. Handik, **Malthusek honako hau ondorioztatzen du: populazio arruntaren batez besteko bizi-mailak ezin dezake biziraupen-maila gainditu.** Gutxieneko maila horretatik ezingo da jaitsi, ezta etengabe igo ere, populazioak berriro ugaltzean beti kontsumituko baitu elikagaien eskaintza berritua.

Baldin eta onartzen badugu jakiak lurraren produktuak direla eta lursailak mugatuak direla, Ricardok honako ondorio hau atera zuen: nobleziaren lur-jabe handiak errentadun baizik ez dira, lurra monopolizatzen dute, beste klaseen bizkarretik bizi dira eta ekonomiaren aurrerakuntzaren alde ez dute ezer egiten.

Horrezaz gain, beste aldetik, langile-klasearen egoera ere oso berezia da. Malthusen populazioaren legea onartu ondoren Ricardok honako soldata-legea formulatu zuen: «**lanaren berezko prezioa langileak bizirauteko eta bere leinua ugaltzeko bezainbestekoa da, ez gehiago ez gutxiago ere**»; hau da, soldatak ezin zuten gaingitu biziraupen-maila, ez eta berori baino txikiagoa izan. Hortaz, **nabaria zen langileek ezin zutela hobera joateko itxaropenik eduki. Ilustrazio garaiko optimistarik optimistenak ere ezin zuten jadanik hartu merkatu libreko ekonomiaren sistema hura berezko justiziaren ekonomiatzat.**

Arestian aipatu dugun legez, ekonomista klasikoek zientzia objektiboa eta neutroa egin gura zuten, edozein ekonomiaren legeak deskribatzeko balioko zuena, egoera historiko eta sozial zehatza kontuan hartu gabe.

Baina kontua zen XIX. mendearen lehenengo erdian ekonomista liberalak ekonomia ingelesaren arazo mota bakar batez arduratzen zirela, merkataritza liberalizatzeaz eta gariaren gaineko zerga baliogabetzeaz, alegia; eta horrek argi eta garbi erakusten zuen beren klasearen interesak defendatzeko joera nabarmena. Antza, ez zen hain erraza neutraltasunari eustea zientzia egitean.

Beste aldetik, Malthusen populazioari buruzko ideietan oinarriturik, langileen egoera hobetzea ezinezkoa zela onartzen zuten aho batez, eta, horren ondorioz, uko egiten zioten lege sozialak egiteari soldatapeko beharginen miseria pixka bat arintzeko. Izan ere, nahiz eta Malthusen ideiak, ekonomista liberal haiek, asko jota, hezkuntzarako diru-laguntza publikoa onartzeko baino ez zeuden prest. Teoriaren alderdirik ahulena neurri sozialei zegokiena zen, geroago agerian geratuko zena.

1820ko hamarkadan zenbait lege sozial egin zuten; adibidez, langileek elkartu eta antolatzeko zituzten trabak kentzen zituen legea. Hala ere, egia da urte haietan liberalek egindako lege-erreformak *laissez faire* hartara bideratuta zeudela, merkataritzari ezarritako eragozpenak ezabatzeraz, alegia. Artean langileen egoera, ordea, negargarria zen.

Hori zela eta, Ricardok lur-jabeen interesak, batetik, eta kapitalisten eta langileen interesak, bestetik, elkarren aurka jarrita zeudela nabarmentzen zuen. Era berean, urte batzuk pasa ondoren, Marxek erraz defenda zezakeen langileen interesak eta kapitalistenak antagonikoak zirela.

Izatez, ekonomia klasikoak deskribapen zehatza eman zion Marxi lan-munduan gertatzen den esplotazioaz. Ekonomista liberalek uste zuten ekonomia-sistema naturala deskribatzen zutela, edozein arotarako baliagarria eta nahitaezkoa zena. Hala ere, Marxek, Hegel-en dialektika erabiliz, sistema hura Naturan baino gehiago Historian errotuta zegoela frogatu zuen, eta esplotazioa sistema kapitalistari egotzi ahal izan zion.

1.5. LIBERALISMOA EGUNERATUA ETA ZUZENDUA

Liberalismo klasikoak izan zuen eraginaren gailurra 1846an gertatu zen. Urte hartan gariari buruzko legeak baliogabetu zituzten, eta merkataritza librea nazio-politikatzat hartu zuten Ingalaterran. Baina, bitxia ematen badu ere, legegintzan arrakasta handia zeukaten arren, beren ideien eragina ahultzen hasia zen.

Horren guztiaren arrazoia liberalismoak ekarritako industrialismoa zen. Aipatutako datatik baino lehenagotik ere, arautu gabeko industrializazio haren ondorio sozialek kezka handiak sorra-

razi zituzten, baita liberalen artean ere. Eta industrializazioak zenbait gizarte-klaseren interesak eta ohiko bizimodua mehatxatzen zituenez, haren kontrako erreakzio biziak agertu ziren.

1841ean ikatzaren industria aztertzeko egindako txosten batek Ingalaterra osoa hunkitu zuen meategietako lan-egoera zakarra azaltzean: emakumeen eta umeen lan bortitza, lan-ordu amaigabeak, inolako segurtasun-neurririk ez egotea, moral- eta osasun-egoera nazkagarria... Apurka-apurka sistema industrialaren kontrako iritzi-korrontea zabalduz joan zen Ingalaterra osoan barrena.

1830eko hamarkadan jadanik, Parlamentua hasi zen, gorabeherak gorabehera, lan-mundua arautzen, batez ere, lan-orduak eta langilearen egoera. XIX. mendea aurrera joan ahala, lege sozialen kopurua handituz joan zen arian-arian. Europako herri guztietan *laissez faire* hura mugatzen hasi zen ondorio sozialak gizalegezkoak ez zirelako.

Horrezaz gain, beste bi klase beren egoeraren kontzientzia hartzen hasi ziren, liberalismoak beren interesak mehatxatzen baitzituen: nekazaria eta industriako soldatapeko langilea.

- Nekazarien sektorea: merkataritza libreko ekonomia nazio-politika bihurtu zenez, nekazaritza zergen bidez babesteko zegoen ohiko joera aldatu egin zen. Horrek esan nahi zuen nekazarien interesak sakrifikatu behar zituztela industriaren eta merkataritzaren onurako. Nekazarien sektorearen interesa tradizioz kontserbadorea izaten zen, eta, horiek horrela, industrializazioaren aldeko politikaren opositore eta kritiko bihurtu zen.
- Industriako langileak: industria-ugazabek kontzientzia politikoa hartzeak langileen kontzientzia ere agertzea ekarri zuen ezinbestean. 1876an gobernu kontserbadoreak langile ingelesen multzo handi bati boto-eskubidea ematean, aldatu egin zen nabarmen indar politikoen arteko oreka Ingalaterrako gizartean. Handik aurrera, bazegoen boto-emaile talde berri bat, eta talde hori kezkatuago zegoen soldatak, lan-orduak eta lan-egoera babesteaz, negozioen hazkundeaz baino. Sektore berri horrentzat interes eta indarra ez zegoen kontratu librean kontratu kolektiboan baizik. Ondorioz, argi eta garbi zegoen liberalismoak eskakizun horiei egoki erantzuten ez bazien, langileak ez zirela inoiz liberalak izango.

Beraz, pentsalari eta politiko liberalek teoria eta politika eguneratu eta zuzendu behar zituzten.

Berriro ere gizakiaren eta gizartearen arteko harremanaren arazoa planteatu behar zen. Aurreko utilitaristek emandako azalpenek (esate baterako, norbanakoaren interesa eta plazera giza jokabidearen lehenengo motibazioa dela, erabilgarritasuna gure ekintzak juzkatzeko azken irizpidea dela...) gero eta indar gutxiago zeukaten. Etikan zein gizarte-zientzietan erantzunak gero eta urrunago zeuden indibidualismotik, eta nolabaiteko azalpen komunitarista bilatzera jo zuten.

Beraz, filosofo liberalen teoria, benetako gizarte-filosofia izango bazen, eguneratu behar zen, bestela gizarte-klase baten interesak defendatzeko ideologia hutsa izango zen.

Zuzentze-lan hura bi mementotan egin zuten; lehenengoan John Stuart Millen eta Herbert Spencer-en filosofiak ditugu; bigarrenean, Oxfordeko filosofo idealisten lana dugu, batez ere, Thomas Hill Green-ena. Lan honetan John Stuart Millen lanaz arduratuko gara batik bat, aipatutako hiru filosofo horietarik mendebaldeko politikan eta gizarte filosofian eragin handiena izan baitu.

1.6. JOHN STUART MILL(1806-1873) ETA ETIKA UTILITARISTA

John Stuart Millen filosofia leial izan zitzaion bere aita James Mill eta J.Benthamengandik jasotako filosofiari. Horrezaz gain, honako eragin hauek ere jaso zituen: Auguste Comte filosofo frantsesaren positibismoarena, eta haren laguna S.T. Coleridge-en bitartez jasotako idealismo alemaniarrarena.

Bere filosofiaren oinarria zen enpirismo britainiarra birmoldatzen saiatu zen hainbat pentsamendu-korrante integratuz. Honekin batera, aurreko teoria utilitarista ere zuzendu zuen. Hain zuzen ere, utilitarismoaren tradizioa zuzentzetik dator Stuart Millen filosofiaren balioa.

1.6.1. John Stuart Millen etika

Millen teoria etikoa liberalismoa zuzentzeko abiapuntua da. Itxuraz, Stuart Millek lehenengotan onartu zuen zorionik handienaren printzipioa eta berorri lotutako ideiak: atsegin handiena lortzeko nahia giza jokabidearen motibo bakarra dela, «gehiengoaren zoriona» gizartearen ongizatea eskuratzeko araua dela, bai eta edozein jokabide moralaren helburua ere, etab.

Aurreko utilitarismoaren hedonismo hutsa ere aldatu zuen, atseginak kalitate moralari begira sailka daitezkeela baieztatu baitzuen, eta horren ondorioz, goi-mailako eta behe-mailako atseginak bereiz daitezkeela. Atsegin espiritualak, oro har, atsegin materiala baino gehiago balio du. Adibidez, filosofiako edo zientziako egia eskuratzek ematen duen plazerak, edo lagun hurkoari on egiteak dakarren gogobetetze moralak gehiago balio dute janari gozo baten atseginak baino.

Millen etika garrantzi handikoa izan zen liberalismorako, hasierako indibidualismo berekoia baztertzeko baitzuen. Etika berritu horrek altruismoa aldarrikatzen zuen; hau da, borondate oneko gizakiak gizartearen hobe beharra bilatu behar du. Halaber, pertsonak duintasuna eta errespetua berez eta sortzez badituela, eta balio horiek behar beharrezkoak direla zorionsua izateko. Horrelako usteetan oinarritzen zuen Millek gizarte liberalaren eredua.

1.6.2. Askatasunari buruzko ikuskera

Millek *Askatasunaz* izeneko entseguan egin zuen bere ekarririk handiena filosofia politikorako.

Millen iritziz, bere aitaren eta Benthamen belaunaldiko utilitaristak gobernu liberalaren alde zeuden, pentsatzen zutelako gobernu liberala eraginkorragoa izango zela. Pentsalari horien ustez, askatasuna gizartean gehiago hedatzea bigarren mailako kezka zen.

Millen planteamendua, aldiz, oso bestelakoa zen. Pentsatzen zuen pertsonak berez eta gizalegez honako askatasun hauek dituela: pentsatzeko eta ikertzeko askatasuna, eztabaidatzeko askatasuna, baita, nor bere buruaren jabe izanik, juzgatzeko eta ekiteko askatasuna ere. Eta horiek guztiak pertsonarentzat berezko ondasunak direla. Millek uste zuen askatasun edo eskubide horiek, oro har, ondorio onuragarriak eta erabilgarriak dakarzukiela gizarteari eta herritarrei. Baina arrazoi utilitarista hori ez da eskubide horien oinarria, honakoa baizik: moralki heldua den pertsonak gaitasunak ditu berez eta sortzez, hala nola, pentsatzeko eta ikertzeko gaitasuna, eta

juizio eta ekintza moralak egiteko gaitasuna; eta horiexek dira, hain zuzen, edozein askatasun eta eskubideren funtsa. Hortaz, gizarte liberala da eskubide horiek aitortzen dituen, eta, aldi berean, instituzioak modelatzen dituen eskubide horiek gauzatzeko.

Ez zuen gobernu liberala defendatzen eraginkorra zelako bere aurrekoek egiten zuten modura, beste edozein herritar bezala kritikoa eta mesfidatia baitzen gobernuekiko. Baina ziur zegoen askatasun politikoa bide bakarra zela nortasun moral bikainak eta helduak sortzeko, eta gizarte liberala, ondorioz, horientzako egonleku bakarra izan zitekeela. Gizartean, pertsona moraliki bikainak eta helduak sortu behar dira, nortasun horixe bakarrik baita gizatiarra eta zibilizatua, ez beste arrazoiengatik. Arazo publikoei buruzko eztabaidak entzunez, erabaki politikoei parte hartuz, gure printzipio moralen arabera jokatzeko eta gure jokabidearen erantzuleak izanez sortzen baitira gizartean gizaki arrazionalak.

Millen iritziz, askatasuna da zibilizazioa eta kultura ahalbidetzen dituen nahitaezko baldintza.

1.7. JOHN STUART MILL ETA GIZARTEARI BURUZKO KEZKA

Askatasunaz entseguaren helburua gizarte benetan tolerantia lortzea da. Entsegu horretan, Mill ez da kezkatzen arazo politikoez; esaterako, estatuaren egituraz, edo zapalkuntza politikoa arintzeko hartu beharreko neurriez. Oraingoan, gako da nola lortu iritzi publiko tolerantia bat, ikuspuntu desberdinen aberastasuna baloratzen duena eta ideia desberdinak berrikuntzak egiteko sorburutzat hartzen dituen.

Izatez, askatasunak dituen mehatxuetatik beldurgarriena gehiengo intolerantearena da, ohiz kanpokoaren aurrean beti eskandaluz erantzuten duen gizarte-zatiaren mehatxua, hain zuzen. Historia azkar aztertzen badugu, oso erraz topatuko ditugu horren adibideak Stuart Millen kezka-garrantzia ulertzeko. Pentsatzen baldin badugu zenbat denbora eman duten emakumeek beren eskubideen onspena oso-osorik lortzeko, edo zelan gizarte moderno guztiek, liberalek barne, homosexualak baztertu eta zanpatu dituzten; edo erreparatzen baldin badiogu nola eskuratu zuen Adolf Hitler-ek botere politikoa, eta nola, prozedura demokratikoaren bidez boterea behin eskuratu, ondorengo urteetan gehiengo intolerantearen laguntzaz demokrazia ezereztatu, opositor politikoa jazarri, eta historian izan den diktadura beldurgarriena Alemanian ezarri zuen, orduan, hori guztiori kontuan hartuta, aise ulertuko dugu Millen arduraren arrazoia.

Aurreko belaunaldiko liberalek, J. Benthamek eta James Mill (J. Stuart Millen aitak), pentsatzen zuten premiazkoak ziren erreforma politikoa behin eginda, askatasun politikoa problema larriak konponduko zituztela. Horregatik, ondorengo urteetan erreformatu zuten nola banatu behar zen ordezkari politikoa parlamentuan; botoa emateko eskubidea populazioaren talde xumeagoetara ere zabaltzeko zuten, baita hezkuntza publikoari bultzada eman ere. Dena dela, Stuart Millen garaietarako, bistan zen herriaren ongizatea eta askatasun politikoa zein sozialak problema biziak zirela.

Millen liberal zaharrek sumatu ere egin ez zuten **idea inportantea** plazaratu zuen: **gobernu liberalak posible izateko, gizarte liberal baten bermea behar du.**

Millen deskubritu zuen erakunde politikoa eremu zabalago batean daudela errotuta: gizartean. Eta hau horrela izanik, gizarteak, bere ideia eta sineskerekin, bere moralak

rekin eta hezkuntza-mailarekin, beti baldintzatzen du erakundeen funtzionamendua. Gizarte-filosofian pentsatzen baldin bazen askatasuna lortzeko gakoa gizabanakoaren eta gobernuaren arteko erlazioan zegoela, Millek agerian utzi zuen auzi horretan gizartearen edo komunitatearen eragina are eta inportanteagoa zela.

1.7.1. Askatasuna behartzeari buruz

Arestian argi geratu da Millek askatasunari zer balio ematen zion. Berak zioenez, askatasunaren bidez soilik gara dezake gizakiak bere burua, aske izanik soilik gauza dezake gizakiak nortasun moral bikaina. Beraz, askatasunik ez badago, ezinezkoak dira zibilizazioa eta kultura. Eta, hori dela eta, *Askatasunaz* delako idazkian honako problema hau planteatzen du: nola justifika daiteke askatasuna behartzea? Zergatik zaio zilegi estatuari legeen bidez herritarren askatasuna mugatzea?

Problema horri erantzuteko, gizartean ondorengo bi jokabideak bereizten ditu Millek: batetik, gizarte zibil orotan, herritarraren jokabide pribatua dago, eta, bestetik, herritarraren jokabide soziala.

1.7.2. Bi jokaera mota gizartean

Jokaera pribatuaren eremuan herritarraren ekintzek herritarrari berari eragiten diote bakarrik, hala nola, norberaren bizitza-proiekturako erabakiak hartzean (ezkondu ala ez ezkondu, horrela ala bestela jantzi, hura ala hori ikasi...), norberaren pentsamoldea eratzean, zeinahi produktu kontsumitzean (besteren bati kalterik ekartzen ez badio kontsumitzean)...Ikusten dugunez, mota horretako jokabideek ez diote kalterik egiten hurkoari.

Jokaera sozialaren eremuan, ordea, herritarraren ekintzek ondorioak ekartzen dizkiete besteei; horien adibideak honakoak ditugu: salerostea, lan egitea, ideiak eta iritziak adieraztea eta abar.

Bereizketa hori behin eginda, lehenik jokaera pribatuan askatasun indibidualaren eskubidea defendatzen du Millek edozein gizarte zibiletarako: gizaki heldu orok eskubide morala du jokabide moralaren eremuan askatasun osoz jokatzeko, eta horregatik, legeak babestu behar du eskubide hori.

Etika utilitaristaren goi printzipioaren bidez, zorionik handienaren printzipioaren bidez, alegia, justifikatzen da portaera pribatuetan askatasun osoz jokatzeko eskubidea. Printzipio horren arabera beti jardun behar dugu ahalik eta zorionik handiena ekartzeko jende kopuru handienarentzat. Millekin batera ontzat hartzen baldin badugu nortasunaren garapena dela zoriontasunaren gakoa, eta pertsonen beren indibidualtasuna eta nortasun morala garatzeko nahi-taetzko dutela askatasuna, onartu behar dugu bizitza pribatuan askatasunez jokatzeko eskubidea ezinbestekoa dela.

Gerta liteke gure ideia politikoak edo erlijiosoak, gure sexu-joera, gure bizimodua oro har, besteen gogokoa ez izatea. Baina horrek ez du esan nahi kalterik egiten diegunik, eta, hortaz, ez litzateke inondik inora ere zilegi gu behartzea lege edo gizartearen presioaren bitartez, bizitza pribatuan gure interesen arabera jokatzeko eskubide osoa baitugu.

Bestalde, gizarte zibilaren autoritate printzipioa ere defendatzen du: jokaera sozialak beste herritarrengan eragina duenez, eta kalteak ere ekarri ahal dizkienez, gizarte zibil orok herritarren jokaera sozialaren eremua arautzeko eskubidea bidezko du, legeak edo bestelakoak erabiliz. Adibidez, edozein pertsonak erabateko askatasunez bere iritzia eta kritikak adierazteko eskubidea izan behar du. Baina eskubide hori legeak arautu behar du, kritikak eta ideiak adierazteak beste herritarrei ondorioak ekartzen dizkielako. Kazetari batek politiko batek hartutako erabakiak kritika litzake (eta lan horrek onurak ekartzen dizkio gizarteari). Baina ezin litzake politiko hori difamatu faltsukerien bidez egunkari gehiago saltzeko, eta halako jokabidea legeak zigortu beharko du.

Beste aldetik ere, printzipio berberak justifikatzen du gizarte zibilak duen aginpidea jokabide sozialak arautzeko, zorionik handienaren printzipioak herritarren eskubideak eta ongizatea babestea eskatzen baitu. Merkatariek edozein jaki saltzeko eta horren truke kobratzeko eskubidea dute. Baina, aldi berean, gizarteak, legez, behar dezake merkataria hori etiketa egitiak ipintzera eta negozioaren osasuna eta higieena ere ikuskatzera, bezero guztiek osasun- eta informazio-eskubidea dutelako, faktore haiek zaindu ezean, ezinezkoa izango delako gehiengoaren ongizatea gizaratean.

Bistan denez, gizarte zibilak duen aginpide zilegia zuhurtziaz erabiltzeko, erabilgarritasuna izan behar du irizpide, arauak eta legeak egitean. Eta premiazkoa izanez gero, bortxaz segurtatu beharko luke horiek betetzea.

Hori horrela, gogora ekarri behar dugu utilitarismoaren moralaren zenbait ideia: Millen teoria etikoan, zorionik handienaren irizpidearen arabera justizia-arauak garrantzitsuenak dira. Eta, hori dela eta, beste pertsonak kaltetzen dituzten jarduerak legez debekatu behar dira. Herritarrak babestearren, justizia-arauek eskubideak eta eskubide horietatik ondorioztatzen diren eginbeharrak ematen dizkiete gizabanakoei. Eta hori guztiori babesteko, dagozkien zigor egoiak ere zehazten dira.

Neuk neure ideiak eta iritzia askatasunez adierazteko dudak eskubide horretatik ondorioztatzen da, nahitaez, beste herritarren eskubide berbera errespetatzeko dudak betebeharra. Eta, horrela, herritar guztien artean eskubide eta betebeharrak berdinak banatzean, zorion orokorra sustatzen da.

Beste aldetik, Millek azpimarratzen du aipatutako gizarte zibilaren aginpide hori mugatuta dagoela. Jokaera pribatuan dugun askatasun horixe da, hain zuzen, gizarte zibilaren agintearen mugatzailea: legeak merkataria behar dezake produktuetan etiketa egokiak ipintzera, inspezioak pasatzera, eta abar egitera... Baina produktua ona bada, eta bezeroei kalterik ekartzen ez badie, legeak ezin dezake inolara ere debekatu produktu hori saltzea; besteak beste, bezeroek bizitza pribatuan askatasun osoz jardun baitezakete beren interesak asetzeko.

Horrezaz gain, honako aspektu inportante hau nabarmentzen du Millek auzi horri buruz: nahiz eta gizarte zibilak herritarren jokaera sozial arau dezakeen, horrek ez du esan nahi bizitza sozialaren atal guztietan esku hartu behar duenik. Are gehiago, herritar baten edo talde baten jokabideak ez badie kalterik ekartzen ingurukoei (edo, agian, onurak ekartzen badizkie), hobe da herritar horiei egiten uztea, «laissez faire». Egiten uzteko jarrera hori, «laissez faire» jarrera, erabat koherentea de Millek jasotako tradizio liberalarekin; hau da, jendea premiazkoa denean derrigor daiteke soilik, bestela hobe da herritarrak bakean uztea.

Pentsalari ingelesak imajinatzen zuen gizarte idealean, berdinen arteko gizarte demokratikoan, alegia, herritar helduek beren nahien arabera jardungo zuten jokaera pribatuan. Baina, aldi berean, beren jokabide sozialari dagokionez, arau eta lege zuhurrak onartzeko unean, eta berorien mende ipintzeko unean, jarrera baikorra izango zuten, beti kontuan harturik herritarrek eskubidea dutela arauak eta legeak erreformatzeko eta kritikatzeko, eta eskubide hori, hain zuzen, babestu behar dela balizko edozein hobekuntzaren bermea delako.

1.8. JOHN STUART MILLEN LIBERALISMO BERRIA

Millen liberalismoak honako berrikuntza hau ekarri zuen: bere aitaren, James Mill, eta J. Benthamen garaiko liberalismoaren **dogma** baztertu zuen betiko; hau da, **gobernuak legeen bidez zenbat eta gutxiago esku hartu gizartean, hainbat eta askatasun handiagoa**. Gure filosofoak egitate nabari bat onartu zuen: legearen inposaketaz aparte, bestelako inposaketa erak daudela gizartean, hala nola, pobreziak eragiten duena, gizarteko sineskera moralek eta erlijio-soek eragiten dutena eta abar. Beraz, gobernuak ahalik eta gutxien esku hartu behar duelako dogma ez zen gakoa; askotan pobreziak, intolerantzia erlijiosoak edo intolerantzia moralak gobernuaren legeek baino askoz gehiago derrigortzen dutelako eta zanpatzen dituztelako jendearen askatasuna eta bilakabide morala. Horrelako kasuetan, Millek onartzen du gobernuak legeen bidez esku hartu behar duela herritarren askatasuna bermatzeko.

Hortaz, urte haietan, batez ere langileen artean, gizartean zeuden premia gordinei adi egonda, **Stuart Millek bete-betean onartu zuen lege sozialak behar-beharrezkoak zirela** aberastasuna hobeto banatzeko eta langileen sufrimendua arintzeko.

1.8.1. Zenbait ekonomia-ideia

Mill haserre zegoen gizarte kapitalista haren bidegabekeriekin, eta horrek bultzatu zituen, neurri handi batean, bere ideia ekonomikoak. Berak zioenez, garai hartako kapitalismoak lanaren irabazkinak banatzen zituen egindako lanarekiko alderantzizko proportzioan ia-ia.

Millek bere ideia ekonomikoak *Ekonomia politikoaren printzipioak* (1848) eta *Sozialismoari buruzko kapituluak* (1879) idazlanetan azaldu zituen.

David Ricardoren ekonomiatik eta teoria klasikotik abiatzen da, eta, funtsean, ez zituen inoiz haien oinarritzko planteamenduak baztertu. Hala ere, ekonomista klasikoek ez bezala, pentsatzen zuen gizartearen instituzio ekonomikoek eta sozialek, eta beroriek historian duten bilakabideak baldintzatzen dutela nola banatzen den ekonomiaren produktua. Adibidez, klase sozialen ordezkariak nola antolatzen den, oso bestelako interes ekonomikoak defendatuko dituzte parlamentuan egingo diren ekonomia-legeek. Gogoan izan XIX. mende hasieran parlamentu ingelesaren ordezkarien gehiengo zabala nobleziako lur-jabeak zirela, klase ertainetako burgesek ez zutela kasik ordezkariarik parlamentuaren lehenengo erreforma egin arte, eta proletarioen ordezkariak ezinezkoa izan zela gobernu kontserbadoreak egindako erreformara arte. Mendeko hiru une desberdin horiek kontuan hartuz gero, argi eta garbi ulertzen dugu noren interesen mende zegoen ekonomiaren produktua banatzea memento historikoaren arabera.

Lege ekonomikoak naturalak direlako ideia baztertzea da Millen ideia ekonomikoaren bereizgarri nagusia. Horren ondorioz, **ekonomia liberalaren beste dogma bat baztertu zuen;**

hau da, ekonomia liberala berez zuzentzen den sistema lehiakorra dela. Hortaz, merkatu librearen arautzea behar-beharrezkoa zela ikusi zuen, irabazkinen banaketa hobetzeko, klase pobreen alde.

Garai hartako ezkerak kapitalismo haren bidegabekeria nabaria behin eta berriro salatzen zuen, eta Mill bat zetorren kritika haiekin. Baina, beste aldetik ere, uste zuen egoera hura bidera zitekeela jabetza pribatuaren legea erreformatzeko kontsensu batera heltzen bazen. Gakoa zen jabetza pribatuaren eskubidea adostea, batetik; eta, bestetik, lan-saria eta laneko esfortzua lotuko lituzkeen berdintasuneko printzipio bat lortzea. Hori egingo balitz, jabetza pribatuko edozein ekonomia zilegi litzateke, ekonomiaren irabazkinak era bidezkoan bananduko lituzke eta. Egoera horretara iristeko, ezinbestekoa da desberdintasunaren arrazoi arbitrarioak desagerraraztea, hala nola, justifikatu ezin daitekeen ondasun naturalen jabetza, mugagabeko herentziak, arautu gabeko monopolioak... Sistema kapitalistan horrelako zuzenketak egingo balira, sistema hori berdintzailea eta justuagoa izango litzateke.

1.8.2. Stuart Millen filosofiaren ekarria

Millen ekarria liberalismoaren filosofiarako honako lau puntu hauetan laburbil ditzakegu:

1. Millen utilitarismoaren teoria etikoak balio moralak berreskuratzen ditu Benthamen teoria antzitik. Hasierako utilitaristen ustez, edozein jokabide, arau, edo legek ondorio onak eta txarrak, atseginak eta minak sor ditzake, eta sortutako atsegin eta min horien kalkulatik ondorioztatzen zuten jokabide, arau, edo lege horien balioa. **Millen planteamendu etikoan, ordea, Kant-enean bezala, ideia nagusia gizakiaren duintasuna eta errespetuaren ideia da:** gizakia askea denez gero, bere portaeraren erantzulea da. Erantzukizun moral horrek duintasuna ematen dio gizakiari, eta horregatik, hain zuzen, zor zaio errespetua gizakiari. Baina inondik inora utilitariora izateari utzi barik, Mill arazoaren alde praktikoaz arduratzen zen gehienbat, nortasunaren balioaz arduratzen zenean: nola gauza lezake nortasunaren balio hori gizartean, eguneroko gorabeherak kontuan harturik. Kezka zehatz horrexegatik da utilitariora Millen teoria.
2. **Millen liberalismoak askatasun politiko eta soziala aldarrikatzen zuen,** ez ondorengo xede bat (demagun, bake soziala, aurrerapen zientifiko eta ekonomikoa...) lortzeko bitarteko egokia zelako, **askatasuna berez ona zela tinko sinesten zuelako** baizik: askatasuna gizakia erantzulea izateko nahitaezko baldintza delako. Nor bere bizitza proiektatzea eta egitea, nor bere gaitasunak eta izaera garatzea ez da zoriona lortzeko bitarteko huts bat, zorientasunaren funtsezko parte bat baizik. Beraz, gizartea ona da, bizimodu askeak gauzatzeko aukera ematen badu.
3. **Askatasuna ez da gizabanakoaren ondasuna soilik, ondasun soziala ere bada.** Adibidez, iritzi bat isilarazteak pertsona bat bortxatzen du, eta aldi berean, gizarteari lapurtzen dizkio iritzi horri buruzko eztabaida libretik datozen onurak. Ikusten denez, norbanakoaren eskubidea eta erabilgarritasun publikoa uztartuta daude.
4. **Gizarte librean sortutako estatu liberalaren zeregina ez da negatiboa, positiboa baizik.** Lehenengo liberalen ustez, gobernuaren eginkizunak negatiboa izan behar zuen; hau da, ahalik eta gutxien hartu behar zuen esku herritarren jardueretan, eta bizi-tza sozialean ahalik eta arlo gehien arautu barik utzi behar zuen, batez ere ekonomia. Ekimen pribatuak erabateko lehentasuna zuen, eta gobernuaren zeregina orden publikoa bermatzea baino ez zen.

Baina, lehen azaldu denez, gizarte-derrigortze bakarra ez da gobernuaren legeek eragindakoa; egoera ekonomikoak, edo gizartean errotutako aurreiritzi moral eta erlijiosoek ere biziki derrigor ditzakete herritarrak. Beraz, gobernuak ez du herritarren askatasuna sustatzen legerik ez eginda, guztiz kontrakoa baizik. Gobernuak betebeharra eta eskubide osoa du legeen bidez pertsonen aukerak berdindu edo areagotzeko, horrela bizimodu humanoagoa eta askeagoa lortzeko asmoz.

Ikusten denez, John Stuart Millen ideiek gaur egun bizirik diraute gure gizarte modernoetan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren Europa osoan zabaldu zen **Ongizatearen Estatuaren kontzeptuan berebiziko eragina izan zuten.**

Marxismoa

2

2.1. KARL MARX (1818-1883). BIZITZA

Karl Heinrich Marx Treberis-en (Alemania) jaio zen 1818an, eta Londresen hil zen 1883an. Familia burges baten semea zen, aita abokatua zuen, eta jatorri judua bazuten ere, sei urte zituela, eliza ebanjelikoan bataiatu zuten. Jesuitekin egin zuen batxilergoa, eta horren ondoren, zuzenbidea eta filosofia estudiatu zituen Bonn-en eta Berlinen.

Hemezortzi bat urte zituenean, Hegel-en filosofia ikasi, eta ezker hegeliarraren kide bihurtu zen unibertsitatean. Bere joera politikoak zirela eta, ezin izan zuen unibertsitatean irakasle-lana lortu, eta kazetari-lanari ekin behar izan zion. 1844an bere jardura politiko ezkertiarra Parisera kanporatu zuten, eta bertan betiko laguna izango zuen Friedrich Engels ezagutu zuen. Europako hainbat hiritatik pasatu zen Brusela, Paris, Berlin, Viena... askotan polizia atzean zuelarik. 1848an Parisen dago iraultza gori gorian dagoenean. 1848ko iraultzaren analisia bi idazlanetan batzen ditu: «Klase arteko borroka Frantzia, 1848-1850» eta «Louis Bonaparteren Brumarioren 18a». Bi lan horietan historia garaikidearen problema zehatz bat (1848ko iraultzarena) interpretazio ekonomikoa erabiliz aztertu zuen. Horren ondoren, Londresera erbesteratu zen eta Engelsen diru-laguntzari esker bizi ahal izan zuen.

Marxek bultzatuta, 1866an Internazional Sozialistaren lehenengo batzarra egin zen. 1867an *Kapitala* idazlanaren lehenabiziko liburukia argitaratu zuen. Beste biak Londreseko Biblioteka Nazionelean kasik hogeitaz urtean egindako ikerketaren fruitua izango dira, eta Engelsek argitaratu zituen Marx hil ondoren. Bere teoriaran uztartu zituen Hegelen filosofia, ekonomia politiko britainiarren ekarria (Adam Smith eta David Ricardo) eta sozialista frantsesen asmo iraultzailea.

2.2. LIBERALISMOAREN ERAGINA

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, pentsaera politiko liberalak bi ideia sozial nagusi garatu zituen:

1. Politika interes kontrajarriak dutenen artean akordioetara heltzeko antzea da, baina akordio horretan parte hartzen dutenek elkar derrigortu gabe.
2. Prozedura demokratikoa akordioetara heltzeko baliozko bide bakarra da.

Marxek liberalismoaren ideiekin zuen harremanari dagokionez, esan behar da asko baloratzen zuela ekonomia liberalaren ekarria. Izan ere, pentsatzen zuen D. Ricardoren teoria ekonomikoa bete-betean asmatzen zuela kapitalismoaren funtzionamendua azaltzean; aldi berean, baina neurri apalagoan, liberalismoak lortutako askatasun politikoei ere garrantzia ematen zien. Hala ere, bistan denez, Marxen pentsamoldea ez zen liberala, arestian aipatutako oinarritzko bi ideia liberal haiek ez baitzituen bere egin.

A. Smith eta D. Ricardo ekonomisten lanari dagokionez, nabaria da Marxek ukatu eta kritikatu behar zuela errotik Ekonomia liberalaren oinarritzko tesia; **merkatu libreko ekonomia-
ren legeak gizakiak berezko** dituelako tesia, alegia.

Liberalismoaren Ekonomiaren atalean azaldu denez, Ilustrazioko filosofian **giza izaera** definitzean, honako bereizgarriak nabarmentzen dira batik bat: arrazionaltasuna, askatasuna eta hobetzeko ahalmena. Ildo horretatik jarraituz, Smith eta Ricardoren iritziz, merkatu libreko eko-

nomiak bakarrik errespetatzen eta sustatzen ditu gizakiaren berezko ezaugarriak. Merkatua eskaintza eta eskaeraren lege neutroen arabera erregulatzen da, estatuak esku hartzen ez badu ez dago pribilegiarik, eta, horren ondorioz, azkarrenak eta langileenak arrakasta izaten dute. Halako argudioen bidez —bistan da— ekonomista liberalek **sistema ekonomiko kapitalista** eta berak zekartzen ordena eta desberdintasun soziala justifikatu eta **legitimatu** nahi zituzten.

Agerian dagoenez, Marxek ezin zituen onartu halako arrazoiak. XIX. mendeko errealitate sozialarekin alderatuz gero, merkatu libreko ekonomia justizia-sistema naturalizat hartzeak gustu txarreko broma bat iruditu behar zuen. Garai hartan langileak egoera negargarrian bizi ziren. Liberalen ustez, merkatu libreko ekonomiaren gakoa **kontratatzeko askatasunean** zegoen: langileak eta enpresaburuak beren interesen arabera negoziatuz adosten zuten biontzat onuragarria zen lan-saria. Baina Marxek zioenez, kontratu libre hura askatasun itxura baino ez zen. Horren azpian kapitalistak langilea duen esplotatzeko modua ezkututzen zen. Kapitalista produkziobideen jabea da; langileak, ordea, bere lan-indarra baino ez dauka saltzeko. Egoera horretan kontratazioa librea dela esatea errealitatea itxuragabetzea baino ez da, kontratuan baldintzak inposa ditzakeen bakarra produkziobideen jabea delako.

Beraz, Marxek zioen merkatu libreko ekonomia ez zela ekonomia sistema naturala; liberalek ziotenaren kontra, ekonomia-lege haiek ez ziren berezkoak, historikoak baizik. Historiako momentu bakoitzean indarrean zeuden produkzio-harremanek eta jabetza-legeek baldintzatzen zuten ekonomia-sistema. Aurreko aro historikoetan, jabetza modu ezberdinean araututa eta produkzio-harreman ezberdinak egonda, ekonomia-sistema oso bestelakoa zen. Halaber, jabetza pribatuaren erregimena ezereztuko balitz eta jabetza komuna balitz, ekonomia liberalean gertatzen ziren desberdintasun eta bidegabekeria orearen sustraia desagertuko litzateke.

2.3. HEGELEN ERAGINA

Marxen eragin filosofikorik inportanteena Hegelena izan zen. Georg Wilhelm Friedrich Hegel (1770-1831) filosofia sistematikoaren azken filosofo handia dugu, eta bere sisteman mendealdeko metafisika osoa sintetizatzen du. XIX. mende hasieran Hegelen filosofiak Alemaniako giro intelektual osoa menderatzen du, erromantizismo alemaniarraren pentsalaririk inportanteena da eta.

Hegelen kezkarik inportanteena Alemaniaren egoera politikoaren irrazionaltasuna da. Alemaniaren kultura eta historia Europako gorenetakoa da; herri germaniarrek biziberritu zuten erromatar inperioa, eta ondoren, herri germaniarrek —frankoek, bisigodoek, saxoiek— Europako erresuma berriak eratu zituzten. Erdi Aroko inperioa germaniarra izan zen, Luteroren erreformak giza askatasunaren eta norbanakoaren erantzukizunaren kontzeptu berria ekarri zuen, eta Hegelen garai hartan erromantizismoak kultura alemaniarraren loraldi berria zekarren aldean. Hala ere, **Alemaniak ez zuen batasun politikorik**, estatu txikien nahas-mahas bat zen. Printzerrien, probintzien edo hiri libreen pribilegioek errotik oztopatzen zuten alemaniarrak estatu nazional bakarrean batzea. Zeharo zentzugabea zen Alemaniaren egoera politikoa, eta hortik zetozkion herri horri ahuleziak eta gaitzak; adibidez, Napoleonen aurkako gerretan frantsesek jostailu antzera erabili izana. **Hegelen filosofiak Alemaniako batasun politikoa justifikatzeko eta argitzeko saioa izango da.**

Hegelen filosofia idealista da (idealismoak baieztatzen du, Errealitateari dagokionez, **Ontologian**, den guztiaren zerizana ideala edo espirituala dela. Ideiek errealitate materiala era-

tzen dute; izaki materiala erreala eta ulergarria da egitura, forma —ideia— duelako, bestela itxuragabea eta kaotikoa litzateke. Ezagutzari dagokionez, **Epistemologian**, honako hau dio idealismoak: edozein errealitate ulertzeko, esaterako bilakabide historikoa, bertan aldaketak eragin dituzten ideiak, sineskerak, balioak eta abar lehentasunez eta ezinbestean ulertu behar dira).

Hegelek, idealista izanda, pentsatzen du historia arrazoiaren hedatzea eta bilakabidea dela. Historiaren aro guztietan aurkitzen dugu garaiko estatu-forma perfektuena den estatu mota, Arrazoiaren gauzatzerik onena dena. Estatu horretan aroaren arrazionaltasun mailarik gorena gauzatzen da. Adibidez, antzinatean Polis-a zen estatu era eredugarria; XIX. mendean, aldiz, monarkia konstituzionala estatu zentralizatuan (Hegelek Alemaniarentzat estatu era egokitzat jotzen zuena).

Historia ulertzeko arrazoiaren bilakabide dialektikoa ulertu behar da. Errealitatea prozesua da, eta bertan gertatzen diren kontra-izateak aurrerakuntzaren eragileak dira. Historian Arrazoiak bere esentzia, hau da, askatasuna gauzatzeri jotzen du. Hegelen ustez, **arrazoiaren aurrerakuntza askatasunaren aurrerakuntza da.**

2.3.1. Dialektika

Hegelek dio errealitateak eta ezagutzak izaera dialektikoa dutela. Horrekin zera esan nahi du: **errealitatea bilakatzen dela bere barne kontra-izateek bultzatuta**; barne-gatazka, beraz, den guztiaren bilakabidearen legea da, eta horixe da dialektika. Hortaz, edozein errealitate ulertzeko —eta oraingoan gehien axola zaizkigun errealitateak gertakari historikoak dira— **metodo dialektikoa** erabili behar da. Errealitatea etengabe aldatzen diharduen prozesua da, eta horren ondorioz, gertaera bat ulertzeko, gertaera horrek beste gertaerekin dituen harremanak, eta azken finean, den guztiarekin dituen loturak eta elkarreaginak ulertu behar dira.

Metodo dialektikoa zer den hobeto ulertzeko, gertaera historiko baten **azalpen dialektikoaren eskema** emango dugu, Hegelek egingo zukeen modura:

Har dezagun **adibidetzat Frantziako iraultza**. Badakigu funtsean iraultza politiko bat izan zela. Frantziako burgesiak estamentu-gizartea irauli zuen, eta monarkia zein monarka kendu erregimen demokratikoa ekarri nahian. Hegelek dioenez, gertaera hori behar bezala ulertzeko, beste faktore askorekin dituen loturak ulertu behar ditugu, baita faktore horiek guztiek nola eragiten dioten elkarri ere.

Arestian aipatu dugun bezala, Hegel filosofo idealista dugu; hau da, erreala den guztiaren esentzia ideia edo espiritua dela dio, eta hortaz, historian suertatzen den aurrerakuntza oro arrazoiaren bilakabidearen fruitua dela (Hegelen filosofian arrazoiak, ideia edo espiritua sinonimoak dira). Hegelen iritziz, Frantziako iraultzaren aurreko garaietan askatasuna ulertzeko bi modu aurrez aurre jarrita zeuden, eta une hartan aurkako bi ideia-korronteek talka egiten zuten:

1. Alde batetik, Erregimen Zaharraren alde zegoen ideia multzoa:
 - Erregearen jainkozko eskubidea defendatzen duen teoria.
 - Obedientzia pasiboaren betebeharra: aurreko teoriatik erregeari obedientzia pasiboa zor zaiola ondorioztatzen da (errege legitimoaren botere-titulua Jainkoarengandik zuzenean jasotako titulua da, eta horren ondorioz, erregearen gobernua traketsa izanda ere, herria ezin da inondik inora haren kontra matxinatu).

- Erregea Jainkoaren aurrean da erantzule soilik, ez herritarren aurrean.
- Pertsonak sortzez ezberdinak direlako ideia. Horren arabera estamentu ezberdinen kide dira; hau da, erregearen leinukoak, nobleziakoak, edo herri xehekoak, eta horregatik, eskubide ezberdinak dituzte eta zuzenbide ezberdinen mende bizi behar dira.
- Ideia multzo horri dagokion gobernu-erregimena monarkia absolutua da estamentuzko gizarte batean.

2. Beste aldetik, iraultzaren aldeko ideia multzo hau zegoen:

- Edozein aginte politiko herritarren eta agintariaren arteko hitzarmenean oinarritzen da. Beraz, botere politikoaren legitimitatea herrian datza.
- Edozein gobernuren helburua herriaren ongizatea da. Hortaz, agintariak erantzun behar dute herritarren aurrean, eta herritarrek berek agintariak aldatzeko eskubidea dute, agintariak txarto gobernatuz gero. Jakina, tiraniaren aurkako erresistentzia-eskubidea dute herritarrek.
- Gizaki guztiek, izatez, eskubide berberak dituzte. Beraz, berdinak izan behar dute legearen aurrean.
- Legea agintearen mugatzailea da.
- Ideia horiei zegokien gobernu era demokrazia erradikalak izan behar zuen.

Eskema horretan zeharo kontrajarriak dauden bi polo topatzen ditugu:

- **Tesia:** batetik, monarkia absolutuaren erregimena erabat zaharkitua eta arrazoiaren kontrakoa zen, eta historiaren une hartan inolako potentzialtasunik ez zeukan. Izan ere, une hartako Frantzia askatasun-idea berriaren adierazpide zen burgesia indartsuaren kontra ezer gutxi egin zezakeen.
- **Antitesia:** bestetik, gaitasunez beteriko erregimen berria dugu, burgesiaren eskuetatik askatasunaren ideia berria zekarrena. Gerra zibilak irauli egin zuen Frantziako egitura politiko eta soziala. Baina handik sortu zen erregimena, herriaren individualismoak eta burugabekeriak bultzatuta, zuzenbideak araututako demokrazia bat bainoago alderdikiariaren diktadura zen eta, azkenean, terrorea ekarri zuen.
- Kontra-izate dialektiko haietatik **sintesia** sortzen da, aurreko bi mementoetako onena jasotzen duena: Napoleon Bonaparteren erregimenean, aginte arrazionala eta ordena batzen zaizkie herritarren eskubide eta askatasunei.

Hauze litzateke **Hegelen metodo dialektikoaren eskema** gertakizun historiko bat azaltzeko. Gure pentsamenduak lege dialektikoaren arabera funtzionatzen du; hau da, ideia bati (**tesia**) bere aukakoa (**antitesia**) aurrez aurre ipintzen zaio, eta kontrajartze horretatik goragoko ideia bat sortzen da, aurreko bien egia apurkak jasotzen dituena (**sintesia**). Era berean, errealitatea, oro har, lege berberaren arabera bilakatzen da: kontra-izateetatik sortzen dira errealitate berriak, zaharrek zeukaten ona gordetzen dutenak, eta, hala, maila goragoko errealitatea gauzatzen da.

Hegelen aburuz, **halabeharrezko logika dialektikoaren arabera bilakatzen da historia**, eta horregatik, aurrerakuntzaz hitz egin daiteke. **Logika dialektiko horrek** azalpen zientifiko bat ematen digu edozein gertaerari buruz, **denboran** horixe gertatzeko beharrezkoak diren **kausa elkarreragileak** azaltzen dizkigulako. Eta, aldi berean, ideal politiko eta etikoen **justifikazio moral bat** ematen digu; arrazionala dena morala delako eta halabeharrez gauzatzen delako. Benetako filosofoak historian elkarren kontra diharduten indar inpersonalak interpretatzen jakin beharko du, arrazoiaren bilakabidea eta helburua ulertu, eta ideal justuak aukeratzeko.

Marxek kritikatu eta baztertuko du idealismo hegeliarraren sistema, porrot egiten duelako kapitalismoaren garaiko problema materialak ulertzerakoan. Baina Hegelen metodo dialektikoa aurkikuntza handitzat joko du **Marxek**, eta **metodoaren eraldaketa materialista egin ondoren, gizartea eta historia analizatzeko erabiliko du.**

Marxek Hegel-en gizarte-filosofiaren oinarritzko ideia orokor hauek onartu zituen:

1. Gizartean, kontrako indarren arteko oreka ezegonkorra da.
2. Kontrako indar horien arteko gatazkak gizarte barruko aldaketak eragiten ditu.
3. Aipatutako gatazka horiek halabeharrez sortzen dituzte halako aldaketak eta ez bestelakoak.
4. Beraz, halabeharrezko barne-eboluzio horretatik sortzen da gizartearen historia.

2.3.2. Herriaren gogoa

Hegel idealista zenez, historian elkarren kontra jotzen duten indarrak idealak edo espiritualak direla esaten du. Beraz, herri baten kulturak —instituzioak, folklora, arteak, erlijioak, filosofiak, zientziak...— herri horren gogoa adierazten du. Kultura baten osagai guztiek osagai horiek asmatu dituen herriaren espiritua adierazten dute, haren Volkgeist-a (Volk: herria, Geist: gogoa, espiritua). Eta herri baten historia prozesu bat da zeinean herri horrek giza zibilizaziorako bere ekarri zehatza garatzen eta burutzen duen.

Esaterako, Alemanian sortutako teoria zientifikoak eta filosofikoak, dauden mitoak eta sineskerak, instituzio politikoak zein erlijiosoak nazio alemaniarraren espirituaren adierazpideak baino ez dira, eta horien aldaketa nazio-gogoaren eboluzioaren emaitza da.

Hegelen historiaren kontzeptuaren arabera, nazioak gizartearen historiaren eragileak eta protagonistak dira. Marxek hipotesi hori ordezkatu zuen eta **nazioen arteko borrokaren tokian klaseen arteko borroka** ipini zuen. Hala, Hegelen filosofia kontserbadorea, nazionalista eta iraultza-kontrakoa bazen, Marxena, ordea, iraultzailea izango da. Hori horrela, Marxismoak bide eman zien XIX. mendeko sozialismoaren forma nagusiei eta XX. mendeko komunismoari ere.

2.3.3. Hegelen ekarria Marxen teorian

Laburbilduz, Marxen filosofiak Hegelenari jarraitu zion honako aspektu inportante hauetan:

1. Marxek Hegelen metodoa, **dialektika**, bere egin zuen, eta uste zuen metodo hori gizarte-garapenaren legea erakusteko metodo bakarra zela. Beraz, haren filosofia, Hegelena bezala, historiaren filosofia bat da.
2. Bien iritziz, **historian gertatzen diren aldaketak halabeharrez eta nahitaez gertatzen dira**. Baina «halabeharrezkotasun» hori Marxen teorian Hegelenean bezain anbigua da, aldi berean arrazoizko kausak eta justifikazio moralak nahasten dituelako: historiako gertakizunak arrazoizko kausak dituzte, historian ezer ez baita nolanahi suertatzen; hortaz, pertsona baten ideal politikoak eta sozialak moralki justifikagarriak izateko, pertsonak arrazionalki ulertu behar du historiaren bilakabidearen helburua, eta horren alde jardun. Marxen filosofia materialista bazen ere, dialektikaren bidez azaldu zuen historian aurrerakuntza badagoela eta bertan moralaren balio gorenak ezinbestean gauzatzen direla.

3. Hegelen eta Marxen ustez, **edozein aldaketaren bultzatzailea borroka** da, boterea lortzeko borroka, alegia. Borroka hori nazioen artekoa baino gizarte klaseen artekoa da, eta bilatzen den boterea politikoa bainoago ekonomikoa da, Marxen ikuspuntutik botere politikoa egoera ekonomikoaren ondorioa baita.

Bai Hegelek eta bai Marxek pentsatzen zuten boterea lortzeko borroka hori ezin litekeela erabaki konponbide baketsu baten bidez; aurkarietako batek erabat garaitu ezean, ezin liteke onurarik atera.

Marx, Hegel bezala, eszeptikoa zen gizabanakoaren ahalmenak baloratzean. Gizarteen historian elkarren kontra jotzen duten indarrak (funtsean ekonomikoa) itsuak eta inpersonalak dira. Horren ondorioz, Millek ez bezala, ez zuten inolako konfiantzarik izaten legeen ahalmenetan zapalkuntza ekonomikoa zuzentzeko.

2.4. MARXISMOAREN HELBURUA ETA IDEOLOGIAREN KONTZEPTUA

Marxismoa hainbat ikuspuntutatik azter dezakegu. Horren arabera, hainbat helburu bereiz ditzakegu:

1. Gizarteari eta ekonomiari buruzko teoria bat den aldetik, marxismoa gizarteari buruzko teoria kritiko bat izango litzateke edo, hobeto esanda, gizarte zehatz bati buruz eta berorren produkzio moduari buruzko teoria kritiko. Gizarte hori gizarte burges-kapitalista da. Horrela bada, marxismoaren asmo garrantzitsuenetako bat gizarteari eta ekonomiari buruzko zientzia bat egitea da.
2. Jarduera politiko bat den aldetik, honako helburu politiko argia dauka marxismoak: gizarte burges-kapitalista iraultzea gizakiaren alienazioa eta gizakien arteko esplotazioa deuseztatzea. Hauxe litzateke helbururik garrantzitsuena, eta, hortaz, marxismoaren filosofia, gizarte-teoria eta ekonomia-politikoaren helburu praxiko horretara daude zuzenduta.
3. Filosofia bat den aldetik, marxismoa aurreko filosofiaren kritika zorrotza izango da; batez ere, Hegelen filosofiarena eta ezker hegeliarraren materialismo mekanizistarena. Baina horrezaz gain, XIX. mendean indarrean dauden ideologiak ere kritikatuko ditu, hala nola, ekonomia politiko liberalaren azpiko filosofia, erlijioa, eta abar. Hori horrela, marxismoak filosofia egiteko modu berri bati ekingo dio: ideologiei buruzko kritika, gaur egun arte iraun duena Frankfurteko eskolaren lanean, adibidez.

Beraz, **filosofia marxistaren helburua** kontzientziaren argitze kritiko eta arrazionala egitea litzateke, hau da, gizakiak edo klase sozial batek bere buruari buruzko argitze kritiko, bai eta historian duen posizioari buruzkoa ere. Horretarako, aurreko filosofiak eta indarrean dauden ideologiak kritikatzeari ekingo dio haien ustezko egiei moztzea kentzeko. Baina beti kontuan harturik filosofia marxistak aipatutako helburu praxiko hari, gizartea iraultzeari, alegia, begira dagoela.

Filosofiaren helburua hobeto azaltzeko, ezinbestekoa da ideologia kontzeptua definitzea. **Ideologia**, oro har, ideien edo irudikapenen sistema bat da —mitoak, sineskerak, ideiak, kontzeptuak— gizarte jakin batean zeregin historiko zehatza daukana. Baina kontuan hartzen baldin badugu ideologiak adierazten dutela gizakiaren eta munduaren arteko erlazioa, baita gizakiaren existentzia sozial eta historikoa ere, esan beharra dago adierazpen hori zuzena edo okerra izan daitekeela. Eta hori gogoan izanik, Marxek ideologiaren beste definizio hertsia bat ematen

digu: ideologia ideien, edo sublimazioen bilduma bat da, eta beraren bitartez errealitatearen nahiz gizakiaren bizitza-egoeraren interpretazio faltsu eta faltsutzailea ematen da. Ideologia horien bidez, gizakiaren egoera latzari arrazionaltasun-itxura bat eman nahi zaio egoera sozial injustua justifikatzeko.

Laburbilduz, ideologia kontzeptuari dagokionez, marxismoak honako tesi hauek defendatzen ditu: alde batetik, gizakiek pentsatzen dutena beroriek bizi diren gizartearen emaitza baino ez da. Eta hor Marxen ikuskera materialista argi eta garbi ageri da: «Ez da gure kontzientzia errealitatea determinatzen duena, errealitateak kontzientzia baizik». Beraz, ideiak produktu sozialak dira, eta berorietan gizartean indarrean dauden interesak islatzen dira. Beste aldetik, Marxen ideologia kontzeptuak funtsean adiera negatiboa dauka ideologiak faltsuak eta faltsutzaileak direlako, errealitatearen interpretazio aldrebestua eta interesatua ematen digute eta.

Beraz, kontzientiaren forma ideologiko horien zeregina gizakien bizimodu errearen egoera maskaratzeta eta itxuragabetzea da. Marxismoak egoera horri alienazio egoera deitzen dio —alienazio kontzeptua hurrengo puntuaren gaia dugu, bitartean deshumanizaziotzat har dezakegu—.

Orduan, lehen aipatutako kontzientzia argitze hura honako honetan datza: aditzera eman behar da ideologiek gure kontzientzia nahasten dutela eta alienazio egoera batean bizi garela. Lan hori nahitaezkoa izango da ideologia maskaratzailak eta alienazioa gainditzeko. Teoria, hortaz, behar-beharrezkoa da, baina ez da aski, teoria orok xede praxikoa izan behar duelako; hau da, teoria praxian gauzatzera eta egiaztatzerara bideratu behar da, baliorik eduki nahi badu. Horra hor, beraz, Marxen filosofiaren buruera: filosofiak ez du soilik errealitatea interpretatu behar, baizik eta errealitatea eraldatzen saiatu behar du. Filosofiak, praxia den aldetik, gizakiaren egoera aldatu behar du gizakiaren izaera alienatua berreskuratzearren, eta horretarako iraultza soziala nahitaezkoa da.

2.5. GIZAKIAREN GAINKOR BURUERA MARXEN TEORIAN: ALIENAZIOA

Alienazioa gizakiari egiten zaion askatasuna izateko, lan egiteko eta pentsatzeko gaitasun-desjabetzea da, gizakia bera bizi den sistema ekonomiko kapitalista dela kausa.

Marxek hainbat alienazioa mota analizatu zituen, hala nola, alienazio erlijioso, filosofikoa, politikoa, soziala eta ekonomikoa, azkeneko hori aipatutako beste guztien zergatia izanda.

Marxen iritziz, **gizakiaren esentzia**, animaliangandik bereizten duena, **lana** da; alegia, gizakia, natura transformatuz, bere bizi-baldintza materialak produzitzeko gai dela. Eta lan produktibo horretan gizakiak bere izaera garatzen du. Baina produzitzeko modu kapitalistan ez da hori gertatzen, produkzio modu horretan lanaren baldintza errealek alienatzen dute eta.

Lan prozesuan langilea laneko objektuaren gainean proiektatzen da, baina produkzio modu kapitalistan objektu hori beste pertsona baten esku geratzen denez, zerbait arrotza balitz bezala antzematen dio langileak. Beraz, lan prozesuak produktuaren desjabetzea dakarkio langileari, eta horrekin batera bere buruaren jabe ez izatea ere, beste pertsona baten proiektua gauzatu behar duen delako berea gauzatu beharrean. Eta are gehiago, produkzio prozesu horretan langilea,

bere lan indarra salduta, bere jabearentzako lanabes bihurtzen da —gauzen artean beste gauza bat, merkantzien artean beste merkantzia bat—.

Laburbilduz, alienazioa zentzu negatiboan ulertu behar da: alde batetik, gizakiaren askatasuna ukatzen duelako. Eta, beste aldetik, lan prozesuan gizakiaren deshumanizazioa dakarrelako.

Alienazio egoera hori ez da naturala, historikoa baizik. Hortaz, eginkizuna bikoitza da: batetik, alienazio hori sortzen duen egitura ekonomikoa, produkzio modu kapitalista, alegia, aztertu behar da. Bestetik, gizarte kapitalista horren iraultza praktikoa egin behar da. Horiexek izango dira Marxen eginkizunik inportanteenak: batetik, ekonomia politiko kapitalistaren legeak eta funtzionamendua ikertzea (hortik *Kapitala* liburuan egindako lan itzela) eta, bestetik, politikan jardutea langileen mugimendua antolatzeko.

2.6. MATERIALISMO HISTORIKOA

Materialismo historikoa Marxek eta Engelsek sortutako zientzia da, gizartearen garapena eta haren aldaketen legeak ikertzen dituena. Beraz, materialismo historikoa historiari buruzko teoria orokor bat da eta, izenak berak adierazten duenez, bi ezaugarri ditu:

1. **Historiaren ikuskera materialista;** hau da, Marxek pentsatzen du errealitate bakarra errealitate materiala dela, ideiak edo bestelako errealitate espiritualak existitzen dira materialadun izakiek ekoizten dituztelako. Historiaren ikerkuntzari begira, horrek esan nahi du, gertakizun historikoak ulertzeko, historian gertatzen diren kausa materialak jakin behar direla (Marxen teorian funtsezko kausa materialak kausa ekonomikoak dira). Adibidez, estatu baten legeak zergatik aldatzen diren ulertzeko, jakin behar ditugu gizarte horretan interes ekonomikoen artean dauden tirabirak.
2. Lehen esan dugunez, Marxek Hegelen metodo dialektikoa onartzen du, metodo horren eraldaketa materialista egin ondoren. Marxek ere baieztatzen du errealitate orok, errealitate historikoa barne, izaera dialektikoa duela. Hortaz, historia ulertzeko metodo baliagarri bakarra dialektika da.

Materialismo historikoaren arabera, ordena sozial guztien oinarria produkzioa da, eta produkzioan honako bi kontzeptu hauek bereiz ditzakegu: produkzioarako indarrak eta produkzio-harremanak.

2.6.1. Produkzioarako indarrak eta produkzio-harremanak

1. **Produkzioarako indarrak:** ekonomiaren baldintza materialak dira: eskualde baten ekonomia zenbait baldintza materialen mende dago, hala nola, lehengaiak, azpiegiturak —errepideak, portuak, lantegiak, eta abar— eta langileak. Marxen ustez, produkzioarako indarrak inportanteena langileria da, langileria esplotatuzetik lortzen baitu kapitalistak irabazkina (plusbalioa).
Dena dela, azpimarratu beharra dago lan-prozesu hori ez dela inondik inora prozesu neutro bat, produkzioa beti egoera historiko jakin batean gertatzen delako; hau da, produkzio-harreman jakin batzuen menpe.
2. **Produkzio-harremanak:** harreman horiek ekonomiaren baldintza sozialak adierazten dituzte. Adibidez, lantegi-jabearen eta lana saltzen duen beharginaren arteko harremanak.

nak, lur-jabearen eta haren jabetzari lotuta dagoen jopuaren artekoak, meategi-jabearen eta bertan lan egiten duen esklaboaren arteko erlazioak. Ikusten denez, produkzio-harremanak gizakien arteko erlazioek eta produkzioaren baldintza materialek sortzen dituzten harremanak dira. Nabari da produkzio-harremanetan produkzionarako bideen jabetza dela baldintzarik inportanteena.

Historian harreman horiek jabetza arautzen duten legeetan adierazten dira. Adibidez: produzitzeko modua ezberdina litzateke esklabutza legala balitz, hau da, nagusia gizakien jabe oso-osorik izango balitz. Edo, aurrekoaren antzera, joputasuna legala balitz, Erdi Aroan bezala. Bistan da produzitzeko modua ere oso ezberdina dela kontratatuzko askatasuna oso-osoa denean, liberalismoaren lehenengo urtetan bezala (Estatuak ez zuen arautzen lege bidez gutxieneko soldata, gehienezko lan-jardunaldia, gaixotasun-asegurua, umeen lan-egoera, langileen elkartek legez kanpo zeuden...). Beraz, erraz ulertzen da zergatik zioen Marxek ekonomiaren arauak historikoak zirela, argi baitago produzitzeko modua, produzitzeko legalak diren harremanen mende dagoela eta, lehen azaldu dugunez, harreman horiek jabetza arautzeko moduaren mende daudela.

Horiek horrela, Marxek funtsezko bereizketa bat egiten du historian izan diren produkzio-harremanak ulertzeko. **Produkzionarako bideen jabeak**, batetik, eta **jabeak ez direnak**, bestetik, bereiz ditzakegu, eta, horren arabera, bi funtsezko harreman mota ikus ditzakegu historian:

1. **Esplotatzaileen eta esplotatuen arteko erlazioa:** harreman mota horretan produkzionarako bideen jabeak jabe ez direnen lepotik bizi dira. Horixe da kapitalismoaren harreman tipikoa.
2. **Elkarlaneko harremana:** produkzio-harreman hori historian gertatu da produkzionarako bideen jabetza komuna izan denean.

Beraz, aurrera dezakegu esplotatzaileen eta esplotatuen arteko harremanak ezabatuzko gakoa jabetza pribatua desagerraraztea dela, jabetza komuna izanez gero, esplotazioa eta gizakiaren alienazioaren kausa desagertuko baita.

2.6.2. Produkzio modua

Produkzio modua kontzeptuak gizartea osotasun bat bezala ulertzeko balio du. Lehen esan dugunez, Marx filosofo materialista dugu eta, ondorioz, gizarteen eboluzioa ulertzeko, produkzioaren eremuan —ekonomian— gertatzen diren gatazkak ulertu behar ditugu lehenik. Ez da harritzekoa, hortaz, historian izan diren gizarte moldeei produkzio moduak deitzea, produkzioak eta produzitutakoaren banaketak determinatzen baitituzte gizarte ooren legeak, erakunde politikoak, moralak, ideologiak, erlijioa eta abar.

Edozein produkzio modutan honako egitura hauek bereiz ditzakegu:

1. **Azpiegitura edo oinarri ekonomikoa:** azpiegitura ekonomikoa izeneko maila produkzio-harremanek eta produkzionarako indarrek eratzen dute. Beste aldetik, produkzio-harremanek produkzio modu baten klase sozialak ezartzen dituzte; adibidez, produkzio modu kapitalistan burgesak eta proletarioak, Erdi Aroan produkzio modu feudalean jauntxoa eta jopua, Greziako eta Erromako produkzio moduan herritarra eta esklaboa. Marxek *Kapitala* izeneko lanean produkzio modu kapitalista aztertzen du. Azpiegitura ekonomikoak ondoren azalduko ditugun gainegiturak ere baldintzatzen ditu.
2. **Gainegitura juridiko-politiko eta ideologikoa:** oinarri ekonomiko zehatz bati dagozkion legeak eta erakunde politikoek gainegitura juridiko-politikoak eratzen dute. Eta

oinarri ekonomiko horri dagozkion ideia filosofikoak, erlijiosoak, moralak, zientifikoak... gainegitura ideologikoa eratzen dute. Gainegituren barruan gertatzen den erlazio multzoa hainbat erakunde eta elkartetan gauzatzen da, hala nola, estatuan, irakaskuntza-sisteman, alderdi politikoetan, erakunde erlijiosoetan...

Oinarriaren eta egituraren artean etengabeko elkarreragina dago, eta harreman horretan oinarria elementurik dinamikoena eta erabakigarriena da. Klase sozialak eta haien arteko antagonismoak oinarri ekonomikoan sortzen dira. Produkzio-bideekiko harremanek eta lanaren etekinak eskuratzeko moduak baldintzatzen dituzte antagonismo horiek. Gatazka horiek guztiak gainegituretan islatzen dira: parlamentuaren osieran, irakaskuntzaren sistemaren antolamenduan, kultura menperatzaile motan, eta abar.

Klase antagonikoetan banandutako formazio sozialetan gainegituraren zeregin nagusia indarrean dauden produkzio-harremanak iraunaraztea da. Horrexegatik, Marxek dio formazio sozial guztietan ideologia menperatzailea klase menperatzailearen ideologia dela uneoro. Eta hori dela eta, ideologia menperatzaileak memento horretan indarrean dauden produkzio-harremanak justifikatzen ditu.

2.6.3. Materialismo historikoaren laburpena

Materialismo historikoaren teoriak honako puntu nagusi hauek zituen:

1. Teoriaren arabera, **historia hainbat eredu-aroren segida da**. Aro horiek produzitzeko eta produktuak elkartrukatzeko moduak bereizten ditu; funtsean Marxek honako aroez edo produkzio-moduez hitz egiten du: produkzio modu asiarra, greko-erromatarra (esklabista ere deitua), feudala, burgesa edo kapitalista eta produkzio modu komunista. Produkzio modu eredugarri horietan oinarri ekonomikoak gainegitura egokiak (ideologikoa eta juridiko-politikoa) sortzen ditu, beren zuzenbidea, erakundeak, erlijioa, moralak, filosofia eta abar barne dituztela. Produkzio modu bakoitza eredu ideal bat da eta osotasun antolatu bat eratzen du; hau da, aro bakoitzeko erakunde politikoak, zuzenbidea eta ideologiak egokitzen zaizkie klase menperatzailearen interes ekonomikoiei, edo, bestela esanda, indarrean dauden produkzio-harremanak iraunarazteko zereginari. Marxen teoriak tipo idealak ematen badizkigu ere, historiako gertaera zehatzak ikeritzean, Marxek berak teoria malgutasunez erabiltzen du; adibidez, honako lan historiko hauetan: *Kapitalaren atal historikoetan*, *Klaseen arteko borroka Frantzia 1848tik 1850era* eta *Luis Bonaparteren Brumario-ren 18a*. Zenbait estatu eta herritan aipatutako eboluzio ideal hura erritmo ezberdinei eutsiz garatu da. Izan ere, garatzen ari den herri baten ekonomian, ekonomia zaharraren hondakinak eta berriaren hastapenak aldi berean aurkitu ditzakegu; esaterako, industria-iraultza zabaldu ahala, leku guztietan artisau-tailerrak industria handiekin batera egoten ziren. Ondorioz, ideologia mota diferenteak egoten dira populazioaren geruza diferenteetan.
2. **Historiaren faktore determinatzailea produkzioarako indarren eta produkzio-harremanen arteko erlazioa da**. Historia, azken finean, bizitzako produkzio materialaren prozesu erreala da. Beraz, historiaren bultzatzailea produkzio-indarren eta produkzio-harremanen arteko kontra-izatea da, edo bestela esanda, **klaseen arteko borroka**. **Prozesu osoa dialektikoa da**: azaldu dugunez, oinarri ekonomikoan produkzioarako indarren eta produkzio-harremanen artean gertatzen den egokitzapenik eza aldaketa

sozialaren motorra da. Produkzio-harremanek produkzioarako indarren garapena faboratu beharrean oztopatzen dutenean, aro iraultzailea suertatzen da. Aldi berean, egokitzapen falta hori gainegituren eta oinarri ekonomikoaren artean ere gertatzen da: produkzio moduak sortutako klase sozial berria, gizartean duen posizioaz ohartuta, lehengo klase menperatzaileen aurrez aurre jartzen da. Horrelaxe gertatu zen burgesiarekin eta nobleziarekin produkzio modu feudalean, eta, halaber, gertatzen da proletarioekin eta burgesekin produkzio modu kapitalistan.

Horrela azaltzen du Marxek *Ekonomia politikoaren kritikaren hitzaurrean* **produkzio modu batetik bestera nola pasatzen den esplikatzeko duen legea**: «bere garapenaren une jakin batean, produkzio-indarrak kontra-izanean jartzen dira dauden produkzio-harremanekin edo, horien espresio juridikoa diren jabetza-erlazioekin. Produkzio-indarren garapen-forma ziren harremanok berorien lotura eta kate bihurtu dira. Iraultza sozial baten aroa hasten da orduan. Oinarri ekonomikoa iraultzean irauli egiten da politiki edo bizkorxeago gainegitura eskerga guztia» (K. Marx: *Ekonomia politikoaren kritikaren hitzaurrea*).

Ikusten dugunez, eboluzioaren arau orokorra ziklikoa da. Aro bakoitzean puntu kritikoa edo iraultzailea gertatzen da, une horretan produkzio moduaren egituren arteko oreka hausten da, eta, horren ondoren, indarren arteko oreka berria dakarren beste produkzio modu berri bat sortzen da.

3. **Materialismo historikoan oinarri ekonomikoak lehentasuna du, eta ondorio ideologiko, juridiko eta politikoak bigarren mailakoak dira.** Gainegitura barruan gertaturiko aldaketak azpiegituran gertaturiko aldaketen menpe daude. Baina zer esan nahi du horrek? Determinazio hori norabide bakarrekoa da? Orduan, ideietan, legeetan, morealean, ohituretan gertatutako edozein aldaketaren arrazoia arrazoi ekonomiko hutsa da? Engelsek problema horren inguruan dio azpiegituraren eta gainegituren artean harreman berezia gertatzen dela, harreman dialektikoa; hau da, beraien artean elkarreragina dagoela.
4. **Produkzio moduaren garapen dialektikoa barne-prozesua da eta organismoen garapen-prozesuen antza du.** Gizarte barruko indar produktiboak bete-betean gartzen dira guztiz umotu arte eta, horren ondoren, haustura iraultzaile baten bidez, gizarte-eraldakuntza dator.
5. **Historiak jotzen duen azken xedea klase sozialak desagertzea eta komunismoa ezartzea da:** proletarioek beren jardura politikoaren bidez bultzatuko dute historiaren barne-joera hori. Jabego pribatua desagertu ondoren, klaserik gabeko gizartean, gizarte komunistan, gizakiaren alienazioa bukatuko da.
Hirugarren puntua, azpiegitura ekonomikoaren lehentasunarena, alegia, Marxen teoriaren ezaugarri behinena da. Tesi hori dela eta, Marxen teoria materialista da, eta, tesi horretan bereziki, oinarritu egiten da materialismo historikoak teoria zientifiko izateko duen asmoa: ekonomikoa izanik historian eta gizartean aldatzen den ororen kausa, gizarte-aldaketen eragileak zientifikoki iker daitezke.

2.7. KAPITALISMOAREN AMAIERA

Kapitala lanak frogatu nahi du kapitalismoak, berez, bere barne-garapenagatik, bere burua ezeztatzea jotzen duela, eta haren hondarretatik sozialismoa sortuko dela.

Marxen teoriaren arabera, kapitalismoak bere akaberaren haziak barruan daramatza. Marxek *Kapitalan* egindako azterketan iragarri zuen nolako garapena izango zuen produkzio modu

kapitalistak iraultzaren bidez desagertu arte. Iragarpena kapitalismoaren ekonomia politikoaren analisisan oinarritzen zen. Analisi hartan Marxek zioen ekonomia kapitalistaren logikagatik beragatik produkzioaren anarkia, gizartearen polarizazioa eta, ondorioz, iraultza ezinbestean helduko zirela. Bilakabide hori honela laburbil daiteke:

1. Enpresen arteko lehia dela eta, enpresek gero eta produkzio-unitate handiagotan elkartzera joko dute.
2. Enpresa horiek merkatua monopolizatzen joko dute, eta kapitalak gero eta esku gutxiagotan metatzen joko du; hau da, gero eta handi-mandi gutxiagoren eskuetan pila-tuko da.
3. Irabazkin handiei eusteko, enpresen arteko lehiak areagotu egingo du langileen gaineko esplotazioa; langileari gehiago lan egitea exijituko zaio gutxiago kobratzearen truke.
4. Gizarteak proletarizatzen joko du. Negozio txikiek, tailerrek, artisauek, nekazari-jabe txikiek ezingo dute lehiatu enpresa eta nekazaritza-esplotazio handiekin. Horren ondorioz, desagertu egingo dira, eta lehengo jabe txikiak soldatapeko langile bihurtuko dira.
5. Arian-arian gehiago eta hobeto ekoiztuko da, baina kapitalak esku gutxitan metatzen jotzen duenez eta erosteko ahalmen gutxiago proletarioak gehiengoa izango direnez, ezin izango da ekoiztutakoa kontsumitu. Ekonomia kapitalistan superprodukzioaren, depresio ekonomikoaren eta langabeziaren aro ziklikoak errepikatuko dira.
6. Gizarteak polarizatu egingo da. Alde batetik, kapitalistak; kapitalaren eta produkzioarako bideen jabeak direnak. Beste aldetik, beren lan-indarra saltzeko baino ez daukaten proletarioen masa handiak. Handituz doan polarizazio horrek eta lehen aipatutako krisi ziklikoek iraultza soziala nahitaez ekarriko dute, eta horrekin batera, produkzio-modu kapitalistaren desagertzea.

Marxen iritziz, kapitalismoa desagertu ondoren, hurrengo produkzio modua ekonomia sozializatua izango litzateke: jabetza pribatua desagerrarazi, eta horrekin batera, produkzio-harremanetan klaseen arteko antagonismoak ere desagertuko lirateke. Jabetza pribatuak eta lehia libreak eragindako produkzioaren anarkiari ekonomia planifikatua eta harmonizatuak jarraituko lioke. Hortik aurrera, produkzio modu komunista berrian, elkarlaneko harremanek ordezkatuko lituzkete esplotazio-asmoaren menpe egondako produkzio-harremanak.

2.8. NOLA ERATU ZEN KAPITALISMOA?

Marxek kapitalismoa nola eratu zen historian *Kapitala* lanean azaldu zuen batik batik. *Kapitalaren* azterbide nagusiak honako hauek dira:

1. Ikertzea zer arrazoi ekonomikok sorrarazi zituzten memento hartako klase sozialak.
2. Aztertzea zer kausa ekonomiko zeuden klase horien arteko antagonismoaren azpian.

Lehenengoan, Marxek hau aztertu zuen: antolakuntza kapitalistaren jatorria industrian, klase ertainaren garapena eta, horren ordainak izan zena, soldatapeko langile industrialen klasearen sorrera.

Bigarrenengoan, berriz, Marxek, kapitalismoaren analisi ekonomikoa eginda, aipatutako azterketa historikoaren oinarria jartzen du. Analisi horren bitartez, alde batetik, erakusten du kapitalismoak bi klase nagusiak sortzeko darabilen mekanismoa, eta, beste aldetik, bi klase horien arteko antagonismoaren kausak.

Kapitalaren atal historiko horietan, autorearen lanetan onenetakoak, Marxek antolakuntza kapitalistaren hasiera, XVIII. mendea baino lehenago, eta soldatapeko klasearen sorrera ikertzen ditu. Sistema industrial berriak gizartearen historian zuen eragina ikertzean, Marxek kapitalismoaren azterketa historikoari bide nagusiak ireki zizkion. Esaterako, ikusi zuen nola proletarioen klasea sortu eta hazi egin zen honako faktore hauengatik:

- Nekazariei herri-ondasunak ustiatzeko eskubidea kendu zietenean, lehengo nekazari askok industria-langile bihurtu behar izan zuten¹. Antzekoa gertatu zen industria kapitalistaren garapenak artisau-industria suntsitu zuenean.
- Arian-arian enpresa kapitalisten tamaina eta ahalmena haziz zihoazen. Prozesu hura areagotu egin zen Elizaren lurren desjabetzearekin eta Indietako eta Ameriketako kolonien ustiapenarekin.
- Marxen analisiaren bereizgarri nagusietako bat izan zen gizarte-erlazio eta giza harremanetan kapitalismoak sortutako aldaketak aztertzeko interesa. Marxek nabariarazi zuen kapitalismoak alienazioa ekartzen ziola langileen bizimoduari, industrian eta merkataritzan eragindako aldaketak zirela eta (batez ere lanaren banaketa).
- Marxen tesi orokorra honako hau zen: produkzio modu burges-kapitalistak derrigortu zuen langileen klasea bizimodu zeharo alienatzailea eramatera. Eta bizimodu horrek erabat ezeztatzen zituen burgesiaren filosofia demokratikoak aldarrikatzen zituen ideak; berdintasuna eta anaitasuna, alegia.

2.9. GIZARTE IRAULTZAREN ESTRATEGIA: MARXENGANDIK LENIN-ENGANA

Marxen iritziz, bere filosofiak orientatu behar zuen garaitu behar zen iraultza soziala. Horregatik, bi jardunbideri ekin zion: ikerketa zientifikoari eta politikari-lanari.

2.9.1. Sozialismoa eta komunismoa

Marxen ondoren, mendebaldeko Europan izandako mugimendu politiko erradikal guztiek jaso dute haren pentsamenduaren eragina. Baina, batez ere, horietariko bik aldarrikatu dute Marxen ondorengoak izateko eskubidea, bion artean antza eta diferentzia nabarmenak aldi berean atzematen badira ere:

- Alde batetik, sozialismoa dugu, Lehen Mundu Gerrara arte Europako hainbat alderdi politiko marxistetan garatu zena.
- Beste aldetik, komunismoa dugu, 1917ko Iraultzaren ondoren Errusian gauzatu zena.

Alderdi politiko komunisten eta sozialisten estrategiak erabat ezberdinak izan ziren. Alderdi sozialistek 1914rako aurrerapauso nabarmenak emanda zituzten Europako hainbat estatutan, bereziki Alemanian, non indar politiko handia erdietsi zuten. Sufragioa langileen klasera hedatu

¹ Herri-ondasunak, herri-lurrak eta herri-basoak ziren: Udalak jabetza-erregimen komunitarioan zituen lurrak eta basoak. Udaleko herritarrek, beraz, lur eta baso horiek ustiatzeko eskubidea zuten. Herri-lur eta herri-basoez aparte, bestelako herri-ondasunak ere baziren; esaterako, meategiak. Adibidez, Bizkaian Trianoko mendien jabeak XIX. mendeko azken urteetara arte, Somorrostro haraneko Zazpi Udalbatzak izan ziren: S. Pedro Abanto, Santa Juliana Abanto, Muskiz, Zierbena, Santurtzi, Sestao eta Trapagaran, eta Portugalete hiribildua. Herri horietako biztanleek mendi haien ustiapena banatzen zuten: baso, abere eta meategien ustiapena, hain zuzen ere. Geroago, legeak jabetza-erregimena aldatuta zuenean, herritar askok diru-sarrera bat galdu zuten eta industria-langile eta meatzari bihurtu ziren.

bezain laster, alderdi sozialistek, hauteskundeetan botoak erakarrira, indar handia lortu zuten. Leninen alderdia, aldiz, ez zen inoiz saiatu bere helburuak lortzen masen babesaren bitartez.

Hala ere, bi mugimendu politiko haiek Marxek azaldutako estrategietan oinarritu zituzten beren ekinbide diferenteak. Izan ere, Marxek berak beherago azalduko ditugun bi estrategia-bide ezberdin iradoki zituen; hortaz, sozialistek zein komunistek aurrera eramandako estrategiak Marxen filosofiaren ondorioztat har daitezke.

1850. urtearen inguruan iraultzaren aldeko estrategia anbiguo ageri da. Argiro inoiz esan ez bazuen ere, litekeena da iraultzaren strategiari buruzko ideia aldatzea Marxek. *Komunisten manifestuan* (1848) Marxek ukatu zuen komunistak alderdi politiko bat osatzen zutela; (komunistak) «langile klasearen sektore aurreratua eta kementsuena da» —zioen. Adierazpen horretatik abiatzen da Lenin bere alderdia proletarioen abangoardia gisa definitzeko.

Garai hartan, 1848an, Marxek uste zuen Frantzia iraultza sozialista hasteko eta garaitzeko zorian zegoela, pentsatzen baitzuen sektore sozialistek talde burges txikiak manea zitzaketela. Aldi berean, uste zuen Frantziako iraultzak bultzatuko zuela iraultza burgesa Alemanian. Horren ondorioz, Marxek uste zuen eliteko iraultzaile hautatu batzuek, lanari emanak eta programa ondo definituta, arrakasta eduki zezaketela lan hartan. Marxek elite hori irudikatzen zuen armada baten Estatu nagusi baten antzera, zeinak gizarte-iraultzaren premia historikoa argiro ulertuta, koordinatuko zituen mugimendu politiko erradikal guztiak; esaterako, ezkerreko sindikatuak.

Baina 1848ko ahalegin iraultzaileak porrot egitean, prestakuntza-prozesu bat behar-beharrezkoa zela ondorioztatu zuen Marxek. Prozesua garatuko zen industrializazioak langileei klase-kontzientzia iraultzailea eragin ahala. Iraultza soziala saihestezina zela uste zuen Marxek, baina, bere gizarte-eboluzioaren teoriaren arabera, pentsatu ere egiten zuen iraultza ezinezkoa izango zela gizarte burgesak sistema kapitalistaren gaitasun guztiak garatzen ez bazituen.

Hori horrela, segitu beharreko estrategiak bi urrats zituen:

- Alderdi sozialistek langileen klasea indartzen zuten erreforma burgesen alde presionatu behar zuten.
- Alderdi sozialistek ez zuten beren kreditu politikoa xahutu behar alderdi burgesekin batera lan eginda gobernuan. Garai hartan estrategia hori ohiko bihurtu zen alderdi sozialista marxisten artean; alegia, kargurik ez onartzea alderdi ez-sozialisten gobernuetan, ezta koalizio-gobernuetan sartzea ere.

Baina, bistan denez, estrategiak arrakasta bazuen, litekeena zen hasierako asmo iraultzailearen kontra joatea, zeren eta alderdi politiko batek hauteskundeen bidez zenbat eta erreforma gehiago lortu, orduan eta arrazoi gutxiago baitauka iraultzailea izateko. Eta horixe gertatu zen, hain zuzen ere, hauteskundeetan arrakasta izan zuten alderdi sozialistekin. 1895ean Engelsek berak harro zioen Alemaniako sozialdemokratek arrakasta handiagoa zutela lege-bidezko metodoak erabiliz, legez kanpokoak erabilia baino.

XIX. mendearen amaierako Alemaniako alderdi sozialdemokrata bezalako alderdi batek iraultza egiteko probabilitate gutxi zituen. Politiko haien artean Marxek imajinatutako gizarte-eredua ideala zen eta noizbait iritsi beharreko helmuga, baina amaigabeko prozesu batez ideal hartara iritsi behar zen, demokrazia liberalak ematen zituen bitartekoen bidez. Sozialdemokrata haiek uste zuten, iraultza gertatzekotan, une hartara arte politikan lortutako aurrerapen demokra-

tiko guztiek bere hartan iraungo zutela. Izan ere, 1914erako sineskera horietariko asko tinko errotutako konbikzioak ziren mendebaldeko Europako alderdi sozialisten kideen artean.

2.9.2. Iraultzarako bi estrategia

Ildo beretik, bi estrategia mota bereizten zituen Marxek:

1. Alderdi sozialista batek industria-ekonomia «heldua» daukan estatu batean erabili beharko lukeena.
2. Ekonomia gutxi-asko atzeratua daukan estatu batean erabili beharrekoa.

Materialismo historikoaren teoriari jarraiki, iraultzak ekonomia garatua zuten herrietan gertatu behar zuen, hain zuzen ere, kapitalismoa heldutasunera iritsia zen herrietan. Baina haxe zen auzia: nolako estrategia eraman behar zuten aurrera alderdi sozialistek ekonomia azpigaratua zuten herrietan, Errusian kasu? Nabari denez, Marxek emandako erantzuna berebiziko garrantzia izan behar zuen Errusiako marxistentzat.

1850ean, Alemanian iraultza burgesa gertatzeko zorian zegoela sinetsita, eta, are gehiago, iraultzak arrakasta izango zuela pentsatuta, Marxek Komunisten Ligako Komite Zentralarentzat hitzaldi bat idatzi zuen; bertan, iraultza hari zegokionez, jarraitu beharreko strategiari buruz zenbait aholku ematen zituen: alderdi sozialista batek —zioen— klase ertaineko iraultzaileekin batera lan egin behar du iraultzak arrakasta izan arte. Orduan, bere aliatuen kontra egin beharko du, eta, eskura dituen subertsio-baliabide guztiak erabiliz, eragotzi beharko du industria-ekonomiaren eta gobernu berriaren finkapena: laborari pobreak laborari aberatsen aurka xaxatu beharko ditu, lurra nazionalizatzearen alde jo beharko du... Laburbilduz, proletarioen aldarriak «eten-gabeko iraultza» izan behar du. Beraz, ikusten dugunez, 1850ean Marxek etengabeko iraultza kontzeptua asmatu zuen, geroago 1906an Trotsky-k bere egin eta garatuko zuena. Kontzeptu horrek, funtsean, inspiratu zuen 1917an Leninek aurrera eraman zuen politika, Errusiako iraultza burgesa hasi zenean.

2.9.3. Ghotako programarekiko kritikak

Are eta garrantzitsuagoak izan ziren Marxek Gothako kongresuari egindako iruzkinak, Engelsek *Ghotako programarekiko kritikak* izenburupean argitaratu zituenak Marx hil ondoren. Ghotan (Alemania) 1875ean elkarte politiko erradikal batzuk, geroko Alemaniako alderdi sozialdemokrataren hazia izango zirenak, batzartu ziren programa politiko komuna adosteko. Marxek kritika zorrotza egin zien programa hartan azaltzen zituzten xedeei sozialistak ez zirelako. Marxen iritziz, klase ertaineko iraultza baten xede tipikoak ziren; hau da, eskubide politikoak eta sufragioa. Baina, bide batez, ondorio hartara heldu baino lehen, iruzkin batzuk egin zituen 1875eko Alemaniako egoerari buruz, 40 urte pasa ondoren errusiar iraultzaileek baliozkotzat hartu zituztenak Errusiako egoera ulertzeko: Marxek zioen Alemaniako langile klasea proletarioek bainoago, nekazariak osatzen zutela, eta gaineratzen zuen nekazarien multzoak ezin zuela helburu konstruktiborik lortu politikan, nahiz eta bere kopuruagatik eragile erabakigarria izan. Orduan, iradokitzen zuen proletarioen abangoardia eratu behar zela, funtsean nekazari zen gizarte haren atsekabea gidatzeko eta kontrolatzeko. Lenin-ek, 1905ean, iradokizun hori bere egin zuen *Proletario eta nekazarien diktadura demokratiko-iraultzailea* izeneko egitamuan.

Ghotako kritika hartan Marxek gizarte kapitalistatik sozialistarako bidea nola egin jorratu zuen ere. Batetik besterako igarotzea bi fasetan gertatuko zen:

1. Lehenengoan, produkziarako bideak jabetza pribatutik Estatuaren eskuetara pasatu behar zituzten.
2. Bigarrenengan, lan-zatiketa kendu eta produktu soziala handiagotu behar zen ideal komunista gauzatzeko: «bakoitzari bere gaitasunen arabera, bakoitzari beren premien arabera»

Kapitalismotik sozialismorako iraganbide horretan «estatuak proletarioen diktadura iraultzailea baino ezin daiteke izan» —zioen Marxek. Bistan denez, Marxek Ghotako programari egindako iruzkin haiek Leninen idazlanen haziak izan ziren, 1917ko *Estatua eta iraultza* idazlana kasu.

Laburbilduz, Marxen filosofiak estrategia politikoaren bi ikuskera ezberdini eman zien oinarri, geroko praxi politikoetan islatuko zirenak:

1. Lehenengo estrategia alderdi sozialista marxistek garatu zuten. 1914. urtera arte horixe zirudien marxisten estrategia-bide nagusia, arrakastatsua izan zena. Langileen klasea masa-alderdi handietan antolatuz joan zen, Alemaniako alderdi sozialdemokrataren antzera —SPD—. Liberalismo politikoa estrategia horren eragin nagusietakoa zen, eta, sozialista horien ustetan, iraultza bide luze bat zen, garapen politikoaren, garapen ekonomikoaren eta herri hezkuntzaren fruitua izango zena.
2. Bigarren estrategia leninismoaren estrategian gauzatu zen 1914tik aurrera. Leninek komunismoa elite baten idealtzat jotzen zuen; intelektualen edo proletarioen gutxiengo baten ideala, eskubide politikorik gabeko nekazari-gizarte batean gauzatu behar zena. Korrante horren aldekoen iritziz, iraultza egunean eguneko zeregina zen, bai eta eraldakuntza ekonomiko eta politikoaren ezinbesteko baldintza ere.

Komunismoa

3

3.1. ZER DA LENINISMOA?

Sobietar batasunean gauzatu zen komunismoaren filosofia marxismoaren berrikuspen bat da. Berrikuspen hori Leninek egin zuen, eta, hori dela eta, maiz marxismo-leninismoa esaten zaio.

Stalinek *Leninismoaren oinarriak* idazlanean dio leninismoa inperialismo eta iraultza proletarioaren garaiko marxismoa dela. Horren arabera, Europako kapitalismoaren garapenak eragingo zuen marxismoaren irakurketa berri hura; batez ere, kapitalismoak sortutako kolonialismoak eta kapitalismoak berak Lehen Mundu Gerran izan zuen erantzukizunak bultzatuko zuten berrikuspen hura.

Beste iritzien arabera, leninismoa da, funtsean, Leninek egin zuen marxismoaren moldaera, teoria eta praxi marxista Errusiako egoera jakin hartan erabili ahal izateko.

Dena dela ere, Leninek egindako marxismoaren bertsio horrek garrantzi ikaragarria izan du XX. mendeko politikan eta historian. Esaterako, Leninek lortu zuen marxismoak arrakasta izatea Errusia bezalako herri batean, zeinak populazio nekazaria, nekazaritza-ekonomia eta industria azpigaratua zituen. Egia esateko, une hartara arte, marxismoak beti porrot egiten zuen halako herrietan.

Leninek Errusian topatu zituen ezaugarriek antz handia zuten garai hartan mundu osoan zeuden herri atzeratu eta kolonizatuekin; horren ondorioz, esan dezakegu marxismoa Errusiako egoerara moldatzea, inperialismoaren garaiko egoerara moldatzea bezala izan zela, Leninek Errusian erabilitako metodoak estatu inperialisten kolonietan ere erabilgarriak zirelako, eta horrek XX. mendeko historiarako ondorio nabarmenak ekarri zituen.

Laburtzeko, leninismoa da marxismoaren moldaera bat; funtsean, populazio nekazaria eta ekonomia industrializatu gabea zuten herrietarako egindakoa.

Marxismoak, Leninen ustetan, beti izan zituen bi esanahi, eta XX. mendean, gutxi gorabehera, interpretazio hark bere hartan segitu zuen komunistak izan ziren herrietan. Hona hemen bi esanahiok:

1. Lehenengo adieran, marxismoa Leninentzat kredo erlijioso antzeko zerbait zen, ezin dudatuzko sinesmen baten gaia. Adiera horren arabera, marxismoak komunismoari ematen dio edozein fede edo ideal komunek jarraitzaileak batzeko behar duen indarra. Leninek zalantza barik sinesten zituen marxismoak egiten zituen zenbait baieztapen orokor; hala nola, iraultza sozialaren behar absolutua, iraultzak nahitaez gizarte komunista ekarriko zuela —gizarte kapitalistak eragindako gaitzetatik aske egongo zena—.
2. Hurrengo adieran, Leninek, Marxek bezala, uste zuen filosofia marxista jarduteko gida bat zela: ideia emankor sorta bat, zeinaren bitartez, egoera historikoak analizatu eta jardunbiderik eraginkorrena hauta litekeen. Adiera horretan, hortaz, Leninen marxismoa oso malgua zen praxiari begira. Dakusagunez, Leninek lotu zituen, doktrinari dagokionez, ortodoxia zurruna, eta, praxiari dagokionez, ekiteko malgutasuna.

3.2. ERRUSIAR MARXISMOA

Errusian, 1880. urte aldera, lehenengo alderdi sozialista marxista fundatu zuten. Hasierako sozialismoa haren filosofian Errusiako ezaugarriak islatzen ziren; funtsean, filosofia ne-

kazaria eta humanitarioa zen. Filosofia haren printzipio nagusiaren arabera, gizarte sozialista eraiki liteke Errusiako herri nekazarien komunismo primitiboa abiapuntutzat hartuta. Hori horrela, populazio laborariari zuzendu zioten lehenik propaganda-lana, eta erabateko porrota jaso zuten.

Ondorioz, Errusiako marxistak zeharo makurtu zitzaizkion Marxek eta Engelsek ezarritako gizarte-garapenaren legeari; gizarte-garapenak ezinbestean ondorengo urrats hauei jarraitu behar zien: feudalismoa, kapitalismoa, sozialismoa. Segida hori gizarte-eboluzioaren lege abso-lutua zela onartu zuten. Beraz, nabari zen, Errusian hainbat lekutan bezala, propaganda zuzendu behar zietela gizarte hartan gutxiengoa osatzen zuten hirietako langile industrialei (hala ere, lider politiko moduan, Leninek edukitako ideia inportanteenetako bat izan zen nekazarien indar era-bakigarria sumatzea).

1905ean iraultza burgesa jazo zen Errusian; gorabehera handiko gertaera izan zen Erru-siar marxistentzat. Eta, hori zela eta, lehenengo mailako problema estrategiko bat planteatu zitzaien: zein izan behar zen —gizarte atzeratu batean— alderdi sozialista iraultzaile batek eduki behar zuen jarrera alderdi burges iraultzaile batekiko, kontuan harturik, noski, alderdi burgesa aurrerapenen alde zegoela eta alderdi sozialistak bere xedeak lortzeko itxaropenik ez zuela une hartan?.

Horrez gain, estrategiari zegokionez, baziren beste zenbait problema garrantziko: adibi-dez, nola antolatu behar zen alderdia arrakasta izateko? eta, are zehatzago, nola banatu behar zuten alderdiak bere indarra legezko ekintzen eta legez kanpoko ekintzen artean?

Mendebaldeko Europako alderdi sozialistek uste zuten erreforma politiko liberalak eta eskubide demokratikoak, esaterako, elkartzeko eta adierazpen-askatasuna, arrakastaren aurreka-riak izango zirela. Eta horrekin batera, pentsatzen zuten alderdi sozialistek, beste alderdien an-tzera, masa-alderdiak izan behar zutela, eta antolatzeko modu demokratikoa eduki behar zutela. Baina Errusian askatasun politikorik ez zegoenez, aipatutako bide horri jarraitzea ezinezkoa zen. Beraz, alderdiaren antolakuntzaren kontuak berebiziko garrantzia izan zuen komunismoaren politikak zelakoa izan behar zuen erabakitzeko.

XX. mendeko lehenengo urteetatik marxista errusiarrak bananduta egon ziren alderdia nola antolatu behar zen deliberatzen. Hain zuzen ere, Leninek egin zuen lehendabiziko lan teo-rikoan arazo hura zerabilen gogoan.

Izan ere, errusiar alderdi sozialistan boltxebikeen eta mentxebikeen artean zegoen zatike-taren arrazoia ez zen marxismoaren printzipioekiko desadostasuna, baizik eta antolatzeko mo-duari eta taktika egokiari buruzko desadostasuna.

Oro har, Leninen kideek, boltxebikeek, pentsatzen zuten mugimenduaren gakoa ezkutuko konspirazioak eta legez kanpoko ekintzek izan behar zutela. Alderdiaren nukleoak barruko iraul-tzaile-talde profesionala izan behar zuen; iraultzaileen abangoardia, alegia.

Mentxebikeek, ordea, legez kanpoko ekintzen premia ukatu gabe, pentsatzen zuten mugi-mendu iraultzailearen helburua langile klasea antolatzea zela, jarduera politiko legala aurrera eramateko. Alderdia, horien iritziz, masa-erakunde bat zen, eta, derrigorrean, antolatzeko modu deszentralizatua edo federala eduki behar zuen, bai eta prozedura demokratikoak erabili behar ere, erabakiak hartzeko.

Leninen eredu boltxebikea errusiar elkarte iraultzaileetan tipikoa zen; bere opositoreenak, aldiz, mendebaldeko Europako alderdi sozialistek jorratutako ildoari jarraitu nahi zion. Horixe da Leninen Errusiako marxismoaren bereizgarria, eta Marxek 1850. urte aldera idatzitako lanetatik hurbil dago.

3.3. LENINEN ALDERDIARI BURUZKO TEORIA

1902an Leninek lehendabiziko lan teoriko garrantzitsua, *Zer egin?*, argitara eman zuen. Horren tesi nagusia abangoardia-taldearena zen: langile leialez osatutako iraultzaile multzo txiki batek bete ditzake sozialdemokraten tankerako edozein sindikatuk egiten dituen funtzio guztiak. Kide arituek eta ondo prestatuek izan beharko zuten, eta beste elkarte iraultzaileekin isilpean erlazionatuko lirateke.

Leninek bazekien aurrekoa bezalako planteamendua ez zetorrela bat Alemaniako alderdi sozialdemokratak zuenarekin, une hartara arte, hain juxtu, arrakasta handien izandako alderdi marxistarenarekin. Eta jakin ere bazekien marxismoaren oinarritzko printzipioen aurka ere bazihoala. Marxen aipamen ospetsuak, «langile klasearen emantzipazioa langile klaseari dagokio» ederto asko laburbiltzen zuen materialismo ekonomikoaren praxiaren gakoa: ekonomia kapitalistaren produkzio-harremanek berek sortzen dituzte proletarioak eta haien ideologia iraultzailea; eta ideologia horixe da, hain zuzen ere, gizarte-iraultzaren sorburua. Beraz, proletarioen ekinbidea batzeko balio duen ideologia ezin daiteke agertu ekonomia kapitalista ezarri arte.

Leninek ulertu zuen, bada, ezin ziola tesi hari eutsi ideologiari buruzko teoria marxista aldatzen ez bazuen. Eta baieztatu zuen aurreko pasartean azaldutako arrazonamenduak nahasten zituela sindikalismoaren ideologia eta sozialismoarena. Leninek zioen: «Herri oren historiak frogatzen du langile klaseak, bere indar hutsak baino ez dituela, kontzientzia sindikalista besterik ezin dezakeela garatu; hau da, berez jabetu daiteke sindikatuetan biltzeko beharraz nagusien kontra borrokatzeko, bai eta, horrela, gobernua derrigortzeko premiazkoak diren lan-legeak onartzera ere». Baina, Marxen eta Engelsen filosofia —zioen Leninek— familia burgesetan sortutako intelektualek egin zuten, eta antzeko talde batek ere Errusiara eramane zuen filosofia hura. Beraz, alderdi iraultzaile batek hautatu behar du, edo, sindikatuak klase ertaineko eskuetan erortzen uztea, edo, intelektual sozialisten ideologiak doktrinatuak izatea.

Ideologiaren buruera hori Leninen pentsamenduaren bereizgarria da, eta iruzkin bat me-rezi du: esandakoaren arabera, Leninek baieztatzen zuen langile klaseak ez zuela berez iraultzara jotzen, eta horrek ezezten zuen determinismo ekonomikoaren oinarritzko ideia marxista; hau da, ekonomia kapitalistan izandako esperientziak proletario klasea sortzen duela eta iraultzaile bilakatzen duela. Beraz, Leninek ondorioztatzen zuen aditu talde batek proletarioak gidatu eta maneiatu behar zituela, eta horrek kutsu ez-demokratiko nabaria ematen zion Leninen pentsamoldeari.

Leninen irudiko, klase sozialak bainoago klase ertaineko intelektual talde txiki batek sortzen zuen ideologia. Iritzi hori defendatzeko, errusiar pentsalariak Marxek *Komunisten manifestuan* egindako aipamen batean oinarritzen zen: «...bilakabide historikoa osotasun baten gisara ulertzera altxatu diren ideologo burgesak...».

Laburbilduz, Leninen iritziak, marxismoaren adituak bakarrik du gaitasuna estrategia politikoari buruzko iritzia izateko. Hortik ondorioztatzen da, politikari dagokionez, alderdiaren

abangoardiak proletarioak gidatu, eta behar izanez gero, manipulatu behar dituela. Beraz, alderdia ondo ilustratutako elite adimentsua da, ezinegon sozialaren oldarra eta masen jarduera bideratu behar dituen. Alderdia haien bikaintasun moral eta intelektualarengatik hautatu den gutxiengoa da.

Leninen alderdi-teoria zeharo bat zetorren ideologiaz zeukan ikuskerarekin. Alderdiak hiru ezaugarri nagusi izan behar ditu:

1. Alderdiak jakintza eta ulermen berezia dauzka marxismoari buruz. Eta jakintza hori lortzen da, balio duen metodo zientifiko bakarrari esker; dialektikari esker, alegia. Zientzia haren bitartez, alderdiak gizarte-garapena iragarri, eta politikarako gidari izan nahi zuen. Hala, marxismoa doktrina bihurtzen da, eta haren garbitasunari eutsi beharko zioten, eta, premiazkoa balitz, inposatu beharko.
2. Alderdia kontu handiz hautatutako eta diziplinatutako elite bat zen, haien ustez bikaintasun intelektual eta moral berezia zeukana. Ez zuten alderdia inoiz antolatu masa-alderdi bat izateko moduan, botoen bidez eragiteko eta hautesleak konbentzimenduaren bidez erakartzeko. Haien ideala kausari erabat emana egotea zen; lehenik, iraultzaren aldeko lanari, eta, bigarrenik, gizarte berriaren eraikuntzari.
3. Alderdia oso zentralizatua zegoen, eta antolakuntza federala eta tokian tokiko alderdi-adarren autonomia baztertzen zituzten. Diziplina zurruna eta mailaketa hierarkiako argia izan behar zituen alderdiak. Bazegoen eztabaidatzeko askatasuna harik eta alderdiko komite zentralak erabakiak xedatzen zituen arte. Une hartatik aurrera hartutako erabakia eztabaidaezina zen. Antolatzeko era horri zentralismo demokratikoa deitu zion Leninek.

Azaldu ditugun ideien arabera antolatu zuen Leninek alderdia 1917an, eta Sobietar Batasuneko alderdi komunista eredu bihurtu zen munduko hainbat alderdi komunista antolatzeko.

Bere bizitza osoan Leninek sinetsi zuen honako bi faktoreak behar-beharrezkoak zirela, arrakasta edukitzeko:

1. Batasuna alderdian: arrakasta izateko, militante guztiak diziplina sendoz batuko litzuzkeen erakundea ezinbestekoa zen.
2. Batasuna ideologian: marxismoa militante guztiak helburu berera biltzeko kredoaren eta.

Aipatutako bi eragile horiek 1917ko iraultza egiteko zutabeak izan ziren.

Leninen alderdi ereduak kritika zorrotzak jaso zituen, Europako mendebaldean alderdi sozialistek izandako antolakuntzarekin bat ez zetorrelako, eta zekartzan ondorio ez-demokratikoak begi bistakoak zirelako.

3.4. BI IRAULTZEN AUZIA: IRAULTZA BURGESA ETA IRAULTZA PROLETARIOA

Materialismoa historikoaren teoriak gizarte oren garapenaren lege orokorra ezartzen zuen, eta garai hartako marxista serio guztiak lege hura onartzen zuten: gizarte orok aro —edo produkzio modu— hauetatik iragan behar zuen: feudalismoa, kapitalismoa eta sozialismoa. Aro batetik besterako iraganbidea iraultza sozialaren bitartez egiten da. Iraultza hori gertatzeko, lehenik, produkzio moduak bere helduarora iritsi behar zuen, hau da, balizko potentzialtasun

guztiak garatu behar zituen, eta, bigarrenik, produkzio-harremanak produkzio indarren garapenerako oztopo bihurtu behar ziren.

Lege hark garrantzi berezia zuen Errusiako marxistentzat, Errusian ez baitzen iraultza burgesik gertatu. Teoriaren arabera, ekonomia kapitalistaren garapenak ekarri behar zuen iraultza burgesa, Tsarraren gobernuaren feudalismoa deuseztatzeko, eta, bide batez, erakunde politiko liberal egokiak ezartzeko. Horrela bakarrik egon liteke iraultzara pasatzeko itzaropena.

1905ean Errusian iraultza burges baten saioak porrot egin zuenez, urte hartatik aurrera, bi iraultzen auzia Leninentzat eta Trotskyrentzat funtsezko pentsagai bihurtu zen. Izan ere, marxista serio batek ezin baitzuen «salto» egin iraultza burgesaren gainetik boterea lortu nahi hutsagatik. Taktika egokiei zegokienez, bazeuden bi teoria bateraezin:

1. Mentxebikeen teoria: teoria horrek mendebaldeko alderdi handien taktika imitatzera jotzen zuen. Ohiko interpretazioaren arabera, sozialismoaren arrakasta Errusian ezinezkoa litzateke bertan industria kapitalista garatu eta proletarioak gehiago bihurtu arte. Beraz, iraultza burges baterako taktika egokiari zegokionez, marxistek alderdi burgesei lagundu behar zieten. Eskubide politikoak lortuz gero (sufragio unibertsala, adierazpen- eta elkartzeko askatasuna...), alderdi sozialistak ezkerreko oposiziora pasatu beharko ziren, iraultza sozialistarako abagunea heldu arte. Jarrera hura marxismoaren ortodoxiarekin bat zetorren arren, ez zen oso errealista, ez baitzuen proposatzen inolako politika positiborik Errusiako klaserik handiena eratzten zuten nekazariarentzat. Beste aldetik, egitamu hark ez zien adore handirik ematen sozialistei, alderdi burgesen laguntzaile hutsak izatera kondenatzen baitzituen. Ez Lenin ezta Trotsky ere senti zitezkeen gustura halako egitamuarekin.
2. Trotskyren teoria: Trotskyk marxismo «primitibotzat» jotzen zuen mentxebikeen analisia. Horren orde, askoz analisi zorrotzagoa zen **etengabeko iraultza teoria** proposatu zuen: marxismoa, batez ere, analizatzeko metodo bat da —zioen Trotskyk—. Mementoko egoera kontuan hartu behar du, bai Errusian, bai nazioarteko kapitalismoan. Trotskyren analisiaren mamia honakoa da:
 - Lehenik, Trotskyk uste zuen Errusiako klase ertaina indarge eta ezgai zela iraultza baterako, Errusiako industria estatuak bultzatuta sortu zelako, eta atzerriko kapitalak izan zirelako proiektu industrial haiek aurrera eraman zituztenak. Bistan zenez, kapital atzerriar haiek estatuan jartzen zuten konfiantza osoa beren inbertsioak bermatzeko. Hortaz, ez zirudien klase ertaineko matxinada min handia egiteko gauza zenik.
 - Bigarrenik, Errusiako industriak jadanik sortua zuen proletarioen klasea, hasieratik produkzioan teknologia modernoa eta lanaren zatiketa erabili zituelako. Hori guztiori zela eta, errusiar industrialek beldur handiago zieten beren langileei Tsarraren sistemari baino.
 - Ondorioz, Trotskyk zioen: «Ekonomikoki atzeratuta dagoen herri batean, proletarioek boterea eskura dezakete kapitalismo aurreratua duten herrietan baino lehena». Proletarioek iraultza burges bat egingo balute bezala jokatu behar dute hasieran, feudalismoaren hondarrak suntsitu behar dituztelako, baina ezin daitezke hor gelditu. Kapitalismoari aurre egin eta nekazariei lagundu beharko diete, lur-jabe handien lurak desjabetzearen bitartez.

Trotskyk honako arazo hau ere aipatu zuen: langileek boterea har dezakete, baina eutsi diezaiokete botere horri? Hori —uste zuen Trotskyk— mendebaldeko European gertatuko zenaren

menpe zegoen. Errusiako proletarioen iraultzak mendebaldeko gobernuen esku hartzeari aurre egin beharko lioke, eta, aldi berean, mendebaldeko proletarioen iraultza sustatu beharko luke. Munduko proletarioen laguntza eduki ezean, Errusiako proletarioek bakarrik ezingo lukete ekonomia sozialista eraiki. Marxistak guztiz sinetsita zeuden mendebaldeko Europa iraultzarako prest zegoela garai hartan.

Trotskyren etengabeko iraultzaren buruera hark, 1906an plazaratu zuenak, inspiratu zuen 1917ko iraultzari ekiteko modua. Etengabeko iraultzaren ideiak eraldatu zuen marxismoak iraultza sozialaz zeukan ohiko ideia; hau da, iraultza ekonomia kapitalista garatuetan gerta zitekeela soilik. Bide batez, eta Trotskyren asmoa ez bazen ere, etengabeko iraultza justifikatzeko Trotskyk egindako analisiak frogatzen zuen azalpen ekonomikoak, materialistak, ez datozela beti bat Marxek emandako historiaren lege zurruneekin. Bistan denez, horrek ez zuen ekarri marxismoaren analisi kritikorik, ezta planteamendu berririk ere.

Bi iraultzen auzi horri buruz Leninek egindako analisia, gutxi gorabehera, antzeko ondorioetara heltzen zen. Estrategiari zegokionez, biok, Lenin eta Trotsky, ideia berera iritsi ziren: Errusiako klase ertaina iraultza egiteko gai ez bazen, nekazarien eta langile industrialen arteko aliantza zen aukera bakarra. Leninek uste zuen iraultza has zitekeela nekazarien matxinadarekin, eta, benetako iraultza burgesa bihurtu zitekeela, proletario klaseak zuzenduta.

Lehenengo urratsa zen laborariei laguntza ematea, lur-jabe handien desjabetzearen bitartez. Horretarako, Leninen politika lurra nazionalizatzea zen, nekazariak estatuaren maizter bihurtzeko. Aipatutako urrats hori nekazaritza burgesa abian ipintzeko lehenengo urratsa izango zen, eta, hortik abiatuz, nekazaritza kolektibistara heldu behar zen.

Leninen ideia nagusia zen nekazariak bazutela nolabaiteko joera iraultzailea, alderdi proletario batek erabili zezakeena. Baina, Trotsky bezala, pentsatzen zuen aliantza hura aldi baterako izango zela. Uneren batean, aldatu eta Europako mendebaldeko proletarioekiko aliantza bilakatuko zen, iraultza sozialista egiteko.

3.5. KAPITALISMO INPERIALISTA

Lehen Mundu Gerraren hasierak (1914) eta —bereziki mingarria izan zena— mendebaldeko alderdi sozialistek gerrari emandako sostenguak Leninen baitan eragin itzela izan zuten. Egoera berri hark ildo berriak jorratzera eramane zuen Lenin.

Gerrak Errusiako marxistak jarri zituen politika nazionalaren eta nazioarteko politikaren problemaren aurrean. Mendebaldeko sozialistek printzipio internazionalistak (munduko proletarioen batasuna nazioarteko kapitalismoaren aurka) bazter batean utzi izanak ohartarazi zion Lenini politika nazionala eta nazioartekoa lehenengo mailako problemak zirela iraultzaren estrategia erabakitzeko. Hori zela eta, Leninek 1915. eta 1916. urteetan kapitalismoaren garapen inperialista eta haren ondorioak aztertzeari ekin zion.

Mendebaldeko marxisten traizioak harri eta zur utzi zuen Lenin. Are gehiago, gerra hasieran, Leninek uko egin zion sinesteari Alemaniako sozialistek aurrekontu belikoaren alde bozkatu zutela. Izan ere, Lenin izan zen —Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht-ekin batera— bere herriaren porrota txalotzeko prest zegoen marxista gutxietariko bat: «Langile klasearen ikuspuntutik... monarkiaren eta Tsarraren armadaren porrota gaitzik txikiena izango litzateke» —zioen

Leninek— *Zenbait tesin* 1915eko urrian. Bere aldarria edo «lema» zen «Gerra inperialista gerra zibil bihurtzea», proletario-iraultza bihurtzea, alegia.

Beste aldetik, gerraren aurrean mendebaldeko sozialistek izan zuten ustekabeko jarreraz gain, bazeuden bete gabe Marxek egindako iragarpenak, besteak beste, langile klasea arian-arian pobretzea, klase ertaina proletarizatzea eta iraultza soziala sortzea. Leninek bazuen, bada, gogoeta-egiteko asko: zergatik ez zuen industrializazio kapitalistak sortu proletario klase iraultzailerik kapitalismoa garatuen zegoen herrietan? Leninek ez zuen Marxen teoria baztertzeo asmorik. Hortaz, egiaztatu behar zuen marxismoak frogatzen segitzen zuela iraultza proletarioa saihestezina zela. 1915. eta 1916. urteetan errusiar autorearen idazlanek honako helburu nagusi hau zuten: argitu behar zuten zergatik mendebaldeko Europako proletarioak geldituta zeuden eta nola ekingo zioten beren garapen normalari behar zen uean.

Leninek egiten zuen egoeraren azterketak Engelsek irekitako gogoeta-ildoari jarraitu zion. Engelsek iradokitzen zuen Marxek gutxietsi zuela kapitalismoak zuen garatzeko eta egoerei egokitzeko gaitasuna. Iradokizun horri erreparatu, Leninek honako analisisa hau egin zuen kapitalismoaren eboluzioari buruz:

- Unitate industrialak haziz doazen neurrian monopolista bilakatzera jotzen dute. Kapitalismoak garatu ahala, enpresa monopolista handiak sistemaren bereizgarri nagusi bihurtzen dira. Ekonomia gero eta gehiago kartel eta trustetan antolatzen da.
- Enpresak trust handietan elkartzeko joeratik eta, horren ondorioz, sortzen diren monopolioengatik banakako enpresen arteko lehia kasik desagertzen da nazio mailan. Industriaren gaineko kontrola enpresari ekoizleengandik bankari eta finantzarien eskutara pasatzen da. Merkataritza-kapitala kapital bankarioarekin batzen da, eta, apurka-apurka, kapital erraldoi hori kontrolatzen duen finantzetako oligarkia sortuz doa.
- Ekonomia horrela kontrolatuta, produkzioaren anarkia —Marxen ustez nahitaez lehia librearen ondorio zena— nazio barruan nabarmen moteltzen da. Baina nazioartean egoera oso bestelakoa da. Inperialismo garaiko kapitalismoak sortzen dituen etekinak, batez ere, herri ez-garatuak esplotatzen datoz: herri haietan lan-sariak oso baxuak dira, lehengaiak oso merke erosten dituzte, eta hori guztiori dela eta, inbertitutako kapitalek irabazkin handiak ematen dituzte.
- Horren guztiaren ondorioz, merkatu zabalagoak lortzeko, nazio kapitalisten artean sortzen den lehia gero eta biziagoa da. Askotan, nazio horiek beren interesak defendatzeko, elkarren kontra dauden blokeetan elkartzen dira. Hori horrela, nazio barruko politika estatu-sozialismo batera makurtzen bada ere, nazioarteko politika herri inperialisten arteko lehiara eta borrokara makurtzen da, guztiak herri ez-garatuak esplotatu beharrean daudelako. Horrek guztiorrek gerra inperialista dakar, inperio kolonialak hedatzeko.
- Beraz, 1914ko gerraren arrazoi nagusia honako hau da: Alemaniako kapitalisten elkar-teak, batetik, eta Frantziako eta Ingalaterrakoek, bestetik, Afrika kontrolatu nahi zuten.
- Laburbilduz, monopolioa eta finantza-kapitalismoa lehia libreko kapitalismoaren garapen logikoak dira; inperialismo politikoa kapitalismo monopolistaren ondorio logikoa da, eta gerra inperialismoaren emaitza logikoa baino ez da. Hori zela eta, **Leninek pentsatzen zuen inperialismoa garapen kapitalistaren goi-etapa zela, bai eta trantsizio aro bat ere, gizarte eta ekonomia komunistarantz joko zuena.**

Leninen ustez, teoria horrek balio zuen azaltzeko, batetik, gerraren arrazoia, eta bestetik, zergatik ez ziren bete Marxen iragarpenak —batez ere, iraultza sozialista ekonomia garatuetako

herrietan gertatu behar zelako iragarpena—: herri pobreak esplotatzetik eskuratutako irabazkinek balio zuten herri inperialistetako langileei soldata onak ordaintzeko. Horren ondorioz, Europako langileriaren bizi-mailak gora egin zuen. Baina horrek guztiak areagotu egin zuen kolonietako eta herri azpigaratuetako langileriaren gaineko esplotazioa. Horrek ekarri zuen Europako estatu garatuetan klaseen arteko borroka aldi baterako moteltzea. Eta hori zela eta, Leninen iritziz, ideologia burges txikiak Europako proletarioak kutsatzea lortu zuen denboraldi batez, hain zuzen ere, Pariseko komunaren azken matxinada proletariotik, 1871an, Lehen Mundu Gerra hasi arte, 1914ean.

Urte horietan Leninek demokrazia burgesaz egiten duen balorazioa 1906an egindakoa baino ezkorragoa da. Leninek demokrazia burgesa fikziotzat edo hipokresiatzat hartzen zuen. Haren ustez, finantzetako interesek bakarrik zeukaten benetako boteririk.

Bukatzeko, Leninek frogatu egin behar zuen Europako proletarioak artean iraultzaileak zirela eta gerrak iraultza bizkortuko zuela. Errusiar pentsalariak uste zuen kapitalismo barruko kontra-izateak ez zirela desagertu, baizik eta inperialismoarekin forma berria hartzen zutela. Inperialismoaren garaiko kapitalismoan kontra-izate haiek funtsean bi forma hartzen zituzten:

1. Kapitalismoak ezingo zituen saihesti gero eta zorrotzagoak izango ziren krisiak eta depresioak.
2. Inperioen zabaldu nahiak eragingo zituen gerrak ere saihestezinak izango ziren.

Horiek horrela, gerrek eta etengabeko depresioek kapitalismoaren boterea ezinbestean ahuldu beharko lukete.

Hala ere, Leninen Europako kapitalismoaz zeukan buruerak ez zuen aski azaltzen munta handiko problema bat, historiak erakutsi duenez, berak oker iragarritakoa: batetik, berak zioen mendebaldeko sozialisten traizioaren arrazoia zela sozialistok nazio-burgesiarekin egindako aliantza herri kolonialak esplotatzeko. Bestetik, pentsatzen zuen gerrak sozialisten jarra hura hankaz gora ipiniko zuela; hau da, gerrak berak Europako proletarioei erakutsiko ziela inperialismo garaiko kapitalismoak zekarren basakeriaren forma berria, eta, horri esker, munduko proletarioen gidari bihurtuko ziren kapitalismo eta inperialismoaren zapalkuntza deuseztatzeko. Baina ez zuen inondik inora argitzen nola eraldatu behar zuen gerrak mendebaldeko proletario industrialen eta kolonietako masa esplotatuen arteko erlazioa; ez eta zergatik, gerra pasa ondoren, ez zen berriro errepikatuko herri garatuetako proletarioen eta nazio-burgesien arteko aliantza.

Leninen lanak zenbait aldaketa oinarrizko dakartzkio marxismoari, besteak beste, **proletario kontzeptua**. Marxen teorian proletario hitzak ekonomia kapitalista zuten herrietako langile industrialak baziren, Leninenan, 1917tik aurrera, hitz horrek kutsu berria hartzen du. Munduko proletarioak kontzeptuak herri kolonizatuetako langile klasea adieraztera pasatzen da. Izan ere, Leninek berak aldatu zuen Marxen aldarri ospetsua: «Munduko proletarioak, batu zaitezte» hura «Munduko proletarioak eta herri zapalduak, batu zaitezte» bihurtu zuen.

Bistan denez, aldaketa horren azpian zegoen estrategia honako hau zen: **Komunisten eta herri kolonizatuen indarrak batzea potentzia inperialisten aurka**. Hori horrela, bazirudien etorkizunerako aliantza mendebaldeko proletarioekin bainoago herri ez-garatuekin izan beharko zela.

3.6. IRAULTZAREN GARAIKO ERRONKAK: ESKUBIDE DEMOKRATIKOAK

1917an Lenin prest zegoen beharrezko urratsak emateko, bai iraultza burgesa betetzeko, bai iraultza sozialista hasteko. Jadanik ez zen inportantea bi iraultzen arteko muga bereiztea, zeren eta, Trotskyk ikusi zuenez, bi iraultzak nahastuko baitziren.

Baina, teoriari zegokionez, demokraziaren gaineko gaizki-ulertze batzuk argitu behar zizuten, marxista askorengan tinko errotuta baitzegoen sozialismoa errepublika demokratiko baten bidez heldu behar zelako ustea. Bestalde, demokrazia etapa behar-beharrezkotzat jotzen zuten sozialismorako bidean. Hala ere, ideia hori anbigua zen, eta hainbat modutan interpreta zezaketen:

1. Lehenengo interpretazioan, hainbat marxistek antolakuntza politiko demokratikoa zer-bait positibotzat hartzen zuten. Adiera horren arabera, demokrazia erakunde politiko moralki hobetzat joko zen, herritar guztiei ematen baitizkie eskubide politikoak eta gobernuari muga konstituzionalak ipintzen baitizkio. Hortaz, arazo politikoak konpontzeko baliabide eraginkorrakoak eta baketsuagoak erabiltzen dituen gobernu era litzateke. Hala ulertzen zuten demokrazia mendebaldeko Europako marxista askok, zeinek helburu politiko batzuk eskuratuak zituzten legeen erreforma demokratikoen bitartez.
2. Beste aldetik, «demokraziaren beharra» onartzen zuten, demokraziari berari inolako balio positiborik erantsi gabe. Ikuspuntu horretatik, demokraziara heldu behar zen iraultza egin baino lehen, demokraziak ematen zituen eskubide politikoak aprobetxatuz soilik lor baitzitekeen gizarte burgesaren oinarriak ahultzea. Horrelaxe, hain zuzen ere, ulertzen zuten Leninek demokrazia. Haren iritziz, demokrazia iraultza egiteko bitarteko hutsa besterik ez zen.

Leninen filosofian, non politika klase arteko borroka baino ez den, gehiengoaren gobernuaren kontzeptuak ez dauka zentzu handirik: arazo politiko guztiak menderatzaile izan nahi duten bi klaseen arteko gatazkatik sortzen dira. Alderdi politikoak gatazka hori irabazteko sortutako erakundeak dira, eta, azkenean, klaserik indartsuenak irabazten du.

Leninen ustez, klase ertaineko gobernuan, kapitalistak izatezko boterea daukaten bakarrak direnez, eskubide konstituzionalak kapitalisten pribilegioak babesteko geruza dira; langileentzat, ordea, eskubide horiek balio dute pairatzen duten nahigabea eta bortxa ezkutatzeko. Gobernu oro funtsean diktadura bat da, eta gakoa da erabakitzea nork kontrolatzen duen nor.

Iraultzetan, askotan, —zioen Leninek— ondoen antolatuta dauden gutxiengoak, hau da, klase-kontzientzia sendoena daukanak eta ongien armatuta dagoenak, bere nahia inposatzen dio gehiengoari. Beraz, jokatzeko moduak honako hau izan behar du: alderdi iraultzaileak boterea hartu, eta horren ondoren, gehiengoa erakarri behar du.

Idea horiek guztiek bazuten eragin zuzena garrantzia zeukaten bi problema estrategikoren gainean: alde batetik, alderdiaren harremana —proletarioen abangoardia zen aldetik— gehiengoa osatzen zuten nekazariekin; eta beste aldetik, alderdiaren harremana sobietekin (Errusian, 1905eko eta 1917ko Iraultzen garaiko langileen edo soldaduen ordezkarien batzordea). Arestian azaldutakoa kontuan harturik, hurrengo puntuan ikusiko dugu nola proletarioen eta nekazarien diktadura beren abangoardiaren diktadura bilakatu zen; alderdi komunistaren diktadura, alegia.

3.7. IRAULTZAREN ERRONKAK: GOBERNUA

Boltxebikeek 1917an izandako garaipenak problema berri baten aurrean ipini zuen Lenin: iraultzaile talde batek gobernatzen hasi behar zuen. Xedea argi zegoen, ekonomia kolektibista eta gobernu sozialista eratu behar zituzten; hala ere, ez zegoen batere argi nola gauza zezaketen xede hura.

Problema ez zen makala: gobernu boltxebikearen politika nagusia Errusia azkar industrializatzea zen. Izan ere, Leninen alderdiaren sostengua langile industrialek izan behar zuten, nahiz eta Errusiako populazioaren % 80 nekazaria izan.

Hala eta guztiz ere, 1917an industrializazioa etorkizun urruna zen, eta 1928. urtera arte, Stalinekin lehenengo bost urteko plana abian ipini arte, ez zen industrializazio hura gauzatzen hasi. Kontua da urte haietan Errusian bizi izan zen egoera hain zela larria non erregimen berriarentzat aski zen bizirik irautea.

Beste aldetik, Leninek, iraultzan arrakasta izan zuenean, erakunde erabilgarri bat bakarrik zeukan eskura: alderdia. Beraz, hurrengo urteetako gobernu komunista ulertzeko gako alderdi komunista antolatzeke eta funtzionatzeko moduan zegoen. Horretarako, kontuan hartu behar ditugu alderdiaren bi ezaugarri nagusiak:

1. Alderdia langile-klasearen abangoardia zela.
2. Alderdiak erabakiak hartzeko zeukan antolatzeke modua: zentralismo demokratikoa.

3.8. ALDERDIA, PROLETARIOEN ABANGOARDIA

Boltxebikeek uste zuten, 1917ko Iraultzan izandako arrakastagatik, masak euren alde ipiniko zirela; hala ere, hauteskundeetan ez zuten gehiengo lortu Konstituzio-Batzarrerako. Horren ondorioz, alderdi boltxebikeak hasieran batzar hura eratzea bultzatu bazuen ere, geroago erakunde jaio berria deuseztatu zuen.

Memento hartan, boltxebikeek aldarrikatzen zuten sobieten demokraziak ordezkatu behar zuela parlamentuaren demokrazia burges usteldua. Baina, parlamentuaren eskumenak ezereztu ondoren, artean geratzen zitzaien alderdi politikoen pluraltasuna: klase ertaineko alderdi burgesak, sozialistak —mentxebikeak, kasu— eta abar. Denbora aurrera joan ahala, Leninek eta Trotskyk beren politika inposatu zuten; hau da, gobernu homogeneoa (soilik boltxebikeek eratu) osatzeko politika. Handik gutxira, klase ertaineko alderdiak debekatu zituzten iraultzaren kontrakoak izateagatik eta, geroxeago, beste alderdi sozialistak ere, mentxebikeak barne, legez kanpo ipini zituzten. 1921erako oposizioaren ordezkari guztiak klandestinitatean zeuden, orduan boltxebikeen alderdia, proletarioen abangoardia zelako tesiarekin bat etorrita, proletarioen bozeramale eta ordezkari bakarria bilakatu zen.

Iraultza arrakastatsuen ospeak bultzatuta, 1919an Leninek munduko beste alderdi marxistak batzera deitu zuen 3. Internazional Komunistan. Bertan, erabaki zuten Internazionala osatzen zuten alderdi komunistek kopiatu behar zituztela Errusiako alderdiaren antolakuntza eta taktikak. Handik, Sobietar Batasuneko alderdi komunista munduko beste alderdi komunisten eredu bihurtu zen.

Hirugarren Internazional hartan Leninek zenbait gako-hitz definitu zituen; besteak beste, **alderdiaren kontzeptua proletarioen abangoardia gisa**. Funtsean kontzeptu horrek honako

hau adierazi nahi zuen: alderdia da proletarioen erakunde zuzentzaile garrantzitsuena, proletario-talde hautatua eta prestatua delako. Beraz, alderdiari lotutako masa-organizazioek, adibidez, sobietek, sindikatuek...ezingo lukete inondik inora ezer erabaki politika edo antolakuntza arazo inportantei buruz, alderdiaren arau zuzentzaileak jasotzen ez bazituzten. Laburbilduz, proletarioen diktadura bere abangoardiaren diktadura baino ez da, alderdi komunistaren diktadura.

Proletarioen abangoardia ideia hartatik gobernatzeko filosofia argi eta sinple bat sortu zen estatu komunistarako: gobernuak herriarentzat izan behar zuen, baina herriak ezin zuen bertan parte hartu, gobernu horren gainean inongo kontrolik ez zeukalako. Elite baten gobernu zen, zeina bere burua irautarazteaz arduratzen zen; mugatzaile konstituzionalik gabeko gobernu, ustez gobernatzeko zientzia gorena zeukana. Ez zen harritzekoa elite hark gobernu-arazoez ez ezik, edozein iritziren egokitasunaz ere erabakitzea. Pentsatzen zuten, adibidez, Artean balio zuen estetika bakarria errealismoa zela, Biologian G.Mendel-en herentzia genetikoen teoria faltsua eta burgesa zela, etab.

3.9. ALDERDIA ETA ZENTRALISMO DEMOKRATIKOA

Leninek beti nahiago izan zuen **alderdiaren antolakuntza zentralizatua**. Alderdia antolatzeko modu hari **zentralismo demokratikoa** esan zion.

Alderdia antolatzeko modu hura demokratikotzat zeukaten, zeren alderdikideek edozein auziren inguruan eztabaidatzeko eskubidea baitzuten, baldin eta alderdiak erabakirik argi eta garbi hartua ez bazuen. Baina, behin zerbait erabakita, desadostasuna isilpean gorde behar zuten.

Zentralismoak adierazten zuen agintea zentralizatuta zegoela; hau da, alderdiaren edozein atalek erabakitakoak tinko derrigortzen zituela aginte-hierarkiaren azpiko atalak. Alderdiaren goi-atalak diktadorea eta Komite Zentrala ziren.

Oro har, Lenin bizirik egon zen arte, guztiz normala izan zen eztabaida librea alderdiaren barruan; hala ere, iraultza egin ondoren gobernuaren problema konplexuak heldu zirenean, askatasunez eztabaidatzeko aukera gutxiago egon zen.

Gehienetan, Leninek xedatzen zituen politikak alderdiaren politika bihurtu ohi ziren, baina, soil-soilik eztabaida sutsuak egon ondoren. Adibidez, biziki eztabaidatu eta gero erabaki zuten boltxebikeek gobernu bakarririk osatzea, edo, Lehen Mundu Gerratik irteteko, alemaniarrekin Brest-Litovsk-eko ituna sinatzea. Eta itun hark alderdia sakonki zatitu bazuen ere, alderdikideek ez zuten eztabaida librea galarazi.

Baina 1921. urte aldera, askatasun-maila hura arriskutsu bihurtua zen. Horren ondorioz, goi-buruzagiei alderdiaren gaineko botere gehiago emateko, nabarmen gehitu zituzten Komite Zentralaren diziplina eskuduntzak. Leninen heriotzak (1924) bizkortu egin zuen eztabaidatzeko askatasuna murrizteko prozesu hura. Alderdiaren buruzagitza lortzeko borroka luzearen ondoren, Stalinekin lortu zuen boterea, eta berak apurka-apurka ezereztu zuen alderdiaren barruko eztabaida askea.

Lehen aipatu dugunez, boterea behin eskuratuta, alderdiaren eginkizunak iraultza egitea baino konplexuagoak ziren. Lehenik, gobernu osatu behar zuten. Geroxeago, piztutako gerra zibilari aurre egin behar zioten. Hori bukatu ostean, estatua berreraiki behar zuten. Eta, azkenik,

1928an —Stalinen garaian—, derrigorrezko industrializazioari, eta, horren ordaina zenari, nekazaritzaren antolakuntza berriari, ekin zieten.

Beraz, egoeraren estualdiak eztabaida librea desagertzea ekarri zuen alderdi barruko erabakiak hartzean. Alderdiaren egitura zeharo hierarkiko bilakatu zen: diktadoreak eta konfiantzako kideek Komite Zentrala kontrolatzen zuten, eta Komite Zentralak alderdia kontrolatzen zuten. Bestalde, alderdiak, abangoardia izanik, gobernua eta alderdiz kanpoko organizazio guztiak kontrolpean zituen.

Laburbilduz, aginduak alderdiaren gailurretik azken txokoraino eramateko asmoz, alderdia —Leninek zioenez— transmisio-kate bihurtu zuten. Denbora aurrera joan ahala, alderdiak burokrazia erraldoia sortu zuen, eta mota horretako alderdian Stalinek eta, geroago, Khrushchov-ek eskuratu zuten zuzendaritza.

Zentralismo demokratikoak ez zeukan eztabaida ordenatua egiteko plan- zirriborrorik ere, eta horixe zuen bereizgarri nagusia. Bere asmoa ez zen eztabaida librea deliberatzeko prozesuaren osagai bihurtzea. Antolakuntza mota hartan ez zegoen iritzi publiko informatuak parte hartzeko biderik. Gobernu parlamentarioetan, ordea, eztabaida librea eta iritzi publikoaren parte hartzea, gutxi-asko, lortzen da; eta gobernuak aipatutako osagai horiek bideratu ezingo balitu, ezingo genuke esan gobernu hori demokratikoa denik.

3.10. STALIN (1879-1953), SOZIALISMOA HERRI BAKAR BATEAN

Ikusi dugunez, komunismoaren gako-hitzak hauek dira: alderdiaren kontzeptua eta kapitalismo inperialistari buruzko kontzeptua. Aurreko bi horiei Stalinek **Herri bakar bateko Sozialismoaren kontzeptua** gehitu zien.

Leninismoari dagokion gaiaren hasieran azaldu dugunez, Leninek bete-betean asmatu zuen marxismoa moldatuta, zeren horren bidez lortu baitzuen marxismoa aplikatzea gizarte industrialki azpigaratuan.

Herri bakar bateko Sozialismo kontzeptuak borobiltzen du marxismo- leninismoaren eta mendebaldeko Europako marxismoaren arteko ezberdintasuna. Aldarri edo «lema» hark bultzatuta, Errusia komunista potentzia industrial eta militar handi bihurtu zen (batez ere, 1928. urtetik aurrera, lehenengo bost urteko plana abian ipini zenean)

Komunismo errusiarra nazionalismoaren indarrarekin elkartzean, bost urteko planak bihurtu ziren ekonomia erabat planifikatu baten lehen esperimentu handia. Eta, izan zuten arrakastari esker, Sobietar Batasuneko komunismoa eredu bihurtu zen burujabetza lortzeko borrokan zeuden munduko nekazaritza-gizarte ororentzat.

1924an, Stalinen hitzetan, mendebaldeko potentzia kapitalistek erregimen komunistaren aurka egitea Errusia guztiz sozialista eratzeko oztopo serio bakarra izan zitekeen. Beraz, garrantzi handia zuen Sobietar Batasuna industrializatzeko kanpoko arerioen erasoei behar bezala erantzuteko.

Izan ere, marxista klasikoek beti pentsatu izan zuten sozialismoa herri batean gauzatu ahal izateko produkzio-ahalmen handiko ekonomia behar zela; hots, sozialismoa soilik sor zitekeela

gizarte industrial batean. Stalinek, ordea, honako honi eutsi zion: sozialismoa herri bakar batean eraiki zitekeela lur eta baliabide natural handiak edukiz gero. Hark uste zuen baliabide ugari eta lan-indar egokia edukita, eta gobernuak mugarik gabeko boterea izanda, ekonomia sozialistako sistema bat sor zezaketela.

Ikusten dugunez, **sozialismoa herri bakar batean gauzatzeko doktrina hura marxismo klasikoaren printzipio nagusietariko batetik aldentzen zen: determinismo ekonomikotik**. Printzipio horren arabera, azpiegitura ekonomikoak determinatzen ditu gizarte-molde baten erakunde politikoak eta legeak, eta gizarte horretan sortzen diren ideiak, sineskerak eta abar. Beraz, ekonomia gizartearen oinarria edo azpiegitura da eta, bestalde, politika, zuzenbidea, ideologiak eta beroriei dagozkien erakundeak ekonomiaren gainean eraikitzen diren egiturak dira. Stalinen planteamenduan alderantziz suertatzen da: gobernuak eta alderdi komunistak, hau da, egitura juridiko politikoak, eraikiko dute ekonomia sozialista herri jakin batean.

Dena dela ere, sozialismoa Errusian erabat gauza zitekeelako problemari lotuta, bazeuden gorabehera handiko arazo zehatzagoak ere, eta horiei buruz Stalinek ez zuen azalpen jakinik ematen: zelako prozesu eraman behar zuten aurrera Sobietar Batasuneko industrializazioa gauzatzeko? Prozesuak lasterra izan behar zuen? Eta horrelakoa balitz, zer egin nekazaritza-sektorean eragingo lituzkeen aldaketa sakonen aurrean? Edo, apurka-apurkako prozesua, geldoa, alegia?

Behin Stalinek bere boterea finkatu zuenean, ezin imajinatuzko industrializazio-prozesu azkarrenari ekin zion 1928ko bost urteko planaren bitartez. Horrek aldean zekarren, nahitaez, nekazaritza kolektibistara pasatzeko beharra. 1917ko eredia baztertu zen, non nekazariak estatuari zentzuzko prezioan lurak alokatzen zizkieten. Une hartako helburua nekazaritza-produkzioa gehitu bainoago, industriarako beharrezkoak ziren langileak lortzea zen, bai eta nekazaritza administrazioa eta zergak kobratzeko modua erraztea ere.

Politika haren arrakasta praktikoa harrigarria izan zen. Hamarkada batean baino gehixea goan, Stalinen alderdiak 2. Mundu Gerrako Alemaniari aurre egiteko moduko indar militarra sortu zuen Errusian. Ekoizteko gaitasun handia zuen industria-sistema eraiki zuen, urteko hazkunde-tasa handia zeukana. Hezkuntza sustatu zuen nekazariak industriarako lan-indar bihurtzeko, hala nola, gizarte industrial modernorako beharrezkoak ziren teknikariak, zientzialariak eta administrariak prestatzeko.

Lehenengo bost urteko plan hura beste iraultza bat izan zen, Stalinek zioenez. Goitik inposatutako iraultza izan zen, diktadura totalitario baten bitartez. Horren ondorioz, Errusia komunista Europako potentzia nazional indartsuena bilakatu zen.

Baina Stalinek egindako iraultzak zer berrikuntza ekarri zion marxismo errusiarren filosofia politikoari? Hona hemen zenbait ondorio garrantzitsu:

- Sozialismoa herri bakar batean gauzatzeko teoria aldendu egin zen marxismoaren gako-hitz batetik: determinismo ekonomikotik. Trotskyren etengabeko iraultzaren eta Leninen kapitalismo inperialistaren teoriak arindua zuten, neurri batean behintzat, determinismo ekonomikoaren eragina marxismo errusiarrean. Marxen determinismo ekonomikoak dio azpiegitura ekonomikoak sortzen dituela gainegitura juridiko politiko eta gainegitura ideologikoa. Stalinen garaiko errusiar komunismoan, ordea, gainegitura juridiko politiko oinarri bihurtzen da, berak sortzen baitu ekonomia mota

jakin bat; hau da, alderdi komunistak eta haren mende dagoen gobernuak eraikitzen dute ekonomia kolektibista.

- Nolako erregimen sozialista izan zen hura? Gobernu era sozialista zen, estatua produkzio-bideen jabea zelako. Stalinek zioen klaseen arteko esplotazioa ezereztatua zegoela langileak «lantegien jabeak zirelako», eta ondorioz, «ezin zituztela beren buruak esplotatu». Baina, izatez, erregimenaren muina absolutismo politikoa eta industrializazio derrigortua zen. Horretaz gain, klaseen arteko borroka ere deuseztatua zutela aldarrikatzen zuen Stalinek, eta industria-langileen eta nekazarien arteko harremanak baketsuak zirela. Alabaina, erregimena, industrializazio bizkor hura gauzatu ahal izateko, behartuta zegoen aurreztera, kapitala metatzeko; eta, noski, aurrezki hura nekazarien bizi-mailaren lepotik egin zuten.
- Alderdiak proletariotzat zeukan bere burua, baina gero eta alderdikide gehiago goi-funtzionarioak, industrietako nagusiak eta goi-teknikariak ziren. Erregimenak klase horren faboretan egin zuen gehienbat. Bestalde, erregimenak atsedenaldiraino ordaindua eta hezkuntza eta osasun-zerbitzuak dohain bermatzen zituen.
- Sozialismoa gauzatzeko Stalinek zuzendutako prozesua sufrimenduz bete egon zen —kontuan izanik 2. Mundu Gerrak ekarri zuen egoera izugarria—. Horri lotuta, azpimarratu behar da Stalinek erabilitako errepresioak (purgak, opositoreentzako kontzentrazio-esparruak, polizia sekretuak inposatutako lan bortxatuak...) jendartean segurtasunik ezaren sentimendua zabaltzen zuela.
- Sozialismoa herri bakar batean eraikitzeko, Stalinek errusiar abertzaletasunaren indarra erabili zuen. Haren iritziz, sozialismoaren aberria eraikitzeko ideia eta aberri errusiarra eraikitzeko ideia bat bera ziren. Baina, jakina, Marxen teoriarekiko kontraesan garbia zen sentimendu nazionaletan oinarritu behar izatea sozialismoa gauzatzeko. Marxen ustez, nazionalismoaren eta abertzaletasunaren ideologiak goi-klaseen zerbitzurako asmatu ziren langileak esplotatu eta maneiatzeko. Marxistek internazionalizatzen zituzten beren buruak, eta uste zuten, langile-klaseak beren helburuak lortu ahala, ezberdintasun nazionalak desagertuko zirela.
- Nabarmendu beharra dago Stalinen doktrinak —Herri Bakar Bateko Sozialismoarenak— ez zuela ezer berririk ekarri nazioarteko harremanak ulertzeko moduari zegokionez. Sobietar Batasunaren jokoera, bere eraginpeko herriekin zituen harremani erreparatzen badiegu, ez zen ezertan bereizten ohiko nazionalismo inperialistetatik. Sobietar Batasuneko estatua produkzio-bideen jabea izateak ez zuen eraginik Ekialdeko Europako estatu satelitekiko harremanetan. Baldin eta sistema industrial sobietarrak etekinik atera ahal baldin bazuen estatu haien baliabideen kontrolerik, atera egiten zuen, besterik gabe. Oro har, herri satelitekiko politikari zegokionez, esan beharra dago sobietarrek herri haiek maneiatzen eta erabiltzen zituztela botere ekonomiko eta militarra handiagotzeko.
- Marxek iragarri zuenaren arabera, iraultza sozialista gauzatzearekin batera estatuak apurka-apurka desagertu behar zuen, zeren eta, klaseen arteko gatazkak behin ezabatuta, ez baitzen beharrezkoa izango estatuaren aparatu zanpatzailea gizartea kontrolatzeko. Hala ere, Stalinen doktrinak sozialismoa eraikitzeko estatu-aparatu erraldoia ekarri zuen.
- Stalinen politika onartzeak adierazten zuen sozialismo errusiarraren ohiko hipotesi hau baztertzeko zela: komunismoa gauzatzeko, mendebaldeko Europako langile-klasearen sostengua beharrezkoa zen. Bazeuden arrazoi nabariak pentsatzeko ez zela laguntzarik helduko mendebaldeko langileengandik. Mendebaldeko Europako herri garatuetan langileak bizi-maila hobea, sindikatu independenteak eta erakunde politiko liberalak zituzten. Hortaz, komunismoak ez zuen han (mendebaldeko Europan) hainbeste erakartzen.

Hala ere, egoera arras ezberdina zen herri ez-garatueta eta garatzeko bidean zeuden hainbat herritan. Herri haiek zeukaten egitura sozial eta ekonomikoa XX. mende hasierako Errusiak zeukanaren antzekoa zen: nekazaritza-ekonomia zeukaten eta populazioaren gehiengoa laboraria zen, populazioaren hazkunde-tasa bizkorra izaten zuten, eta baldin eta beren bizi-maila xumeari eusteko baino ez bazen ere, behartuta zeuden industrializazioari azkar ekitera. Bistan da Errusiako industrializazioak erakarmen handia zuela herri haienentzat, eta horri esker bihurtu zen komunismo sobietarra herri ez-garatueta-entzako eredu.

Aipatutako aukera hori Leninek aurretiaz ikusia zuen kapitalismo inperialistaren analisisa egitean; baieztatu zuenean kapitalismo inperialistaren garapenak mundua bi talde handitan banatuko zuela: herri kapitalistak eta inperialismoaren menpeko herriak. Hori horrela, Sozialismoa Herri Bakar Bateko doktrinaren ondorioa nazioartean mundua bi botere-blokeetan banatzea izan zen: Kapitalista-Komunista edo Mendebaldea-Ekialdea.

Bibliografia

4

MARX, KARL: *Idazlan hatatuak*, Klasikoak, Bilbao, 2004



MILL, JOHN STUART: *Askatasunaz, Emakumeen menpekotasunaz, Sozialismoari buruzko kapituluak*, Klasikoak, Bilbao, 2004.

NAVARRO, JOSÉ MANUEL; CALVO, TOMÁS: *Historia de la filosofía*, Ediciones Anaya, Madril, 1979.

GIDDENS, ANTHONY: *El capitalismo y la moderna teoría social*, Editorial Labor, Bartzelona, 1977.

SABINE, GEORGE: *Historia de la teoría política*, 11. argit., Fondo de Cultura Económica, Madril, 1981.

RICARDO, DAVID: *Ekonomia politikoaren eta tributazioaren printzipioak*, Klasikoak, Bilbao, 1995.



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2877-2



9 788445 728772

Salneurria: 14 €